



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXXIV Zenbakia • 2019. urtea-2

**Euskalerriaren
edestia XII**

Euskerazaintza

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpidesaria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK

www.diseinuetakomunikazioa.com

Laguntzaille

 **Bizkaia**

foru aldundia
diputación foral

Euskalerrriaren Edestia

1. 2. 11n atalean ikusi genduna	7
3. 12n Ataleko sarreraren aurkezpena, XIIIn Alfonsogaz asita.....	9
1. 4. XIIIn Alfonso, errege al izatera	10
1. 5. XIIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba- <i>semeak</i>	12
6. 12n atalean sartu orduko, 1'go Errepubliketa gogoratuko dogu.....	12
2. Euskalerrriaren edestian, XIIIIn Ataleko gaia' ren asiera.	14
2. 1. XIIIIn Alfonsoren bizitza eta erregetza.	14
2. 2. 1.899ko urtean Jorraillaren 23an Bilbon.	16
2. 3. XIIIIn Alfonso ostera artuz.	17
2. 4. 1.902ko urtean Loraillaren 25ean.....	18
2. 5. XIIIIn Alfonso ostera berrezkuratz.	20
2. 6. Euskal Abertzaleatasunaren bizitza ostera ebatuz.	23
2. 7. XIIIIn Alfonsoren bizitza ostera berrezkuratz, beren atzerritasuna.....	33
2. 8. XIIIIn Alfonsok, Franko'gaz euki eban artu emona.....	34
9. XIIIIn Alfonsok euki zituzen seme alabak.....	36
10. Torres eta Alkala-Zamora'tar Nizeto'ren bizitza.	37
2. 11. Batikano'a.....	39
2. 12. Batikano'ko, edo Aita Santuen edestia.....	41
2. 13. Oar txiki bat emen.	41
2. 14. Aita Santuen edestiari ostera ebatuz.	42
2. 15. IIn Errepublikaren aldarrikapena eta bein-beiñeko gobernua.....	45
2. 16. IIn Errepublikako bein-beingo edo bitarteko Jaurbidearen kideak.....	46
2. 17. IIn Errepublikaren Aldarrikapena.	47
2. 18. Alkala-Zamora'tar Nizeto 1931'ko urtean.	51
2. 19. Alkala-Zamora'tar Nizeto, IIn Errepublikako lendakari.	52
2. 20. Azana'tar Manuel'en arazoak.	52
2. 21. Espainitar konstituzioaren IIn Errepubliketa.	52
2. 22. 1.931ko espainitar Konstituzioa.	54
2. 23. Lateralri barri orren itxurapenezko ikur edo irudiak	56
2. 24. Agirre ta Lekube'tar Jose Antonio.....	58

2. 25. <i>Jose Antonioren leen urteak</i>	58
2. 26. <i>Jose Antonioren Bizitza, Errepublikako garaiarekin batera</i>	59
2. 27. <i>Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio eta Euskadiren bitarteko Jaurkintza II In Errepublika denboran</i>	67
2. 28. <i>Euskalerriko Jaurkintzaren, atzerri-aldia</i>	72
2. 29. <i>Oar txiki bat emen</i>	74
2. 30.. <i>Ostera, Euskalerriko Jaurkintzaren, atzerri-aldiari ebatuz</i>	75
2. 31. <i>Agirre ta Lekube´tar Jose Antonioren eriotza</i>	77
2. 32.. <i>Arjentinaren, “Aize Oneta”ko aldizkariak, esan ebazanak</i>	78
2. 33.. <i>Franko katoliko aberkide´en, menperatzaillezko gurutz kaisar aldia</i>	88
2. 34. . <i>XII In Atal onen ondorea, XIII In atalagaz asiera emoteko</i>	91
<i>A-1) Nortasunaren zentzuzko izatasuna</i>	92
<i>A-2) Nortasunaren izatasunezko ABERRIAK, ta Norkeriz asmatutako aberkuntzak</i>	92
<i>Norkeri bitartez sortutako Aberriak</i>	94



www.euskerazaintza.org

**690.000
BISITARI**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len", oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589



EUSKALERRIAREN EDESTIA XII.

1. 2. *11n atalean ikusi genduna.*

-Prin eta Prast´tar Juan Jeneralaren bizitzagaz asi giñan Kanobasegaz batera, edes-
tiko 11n zati orretan, berak euki ebalako espainitarren aintzindaritzan garrantzi an-
diena, arik eta Prasedes´tar Sagasta ta beste politikua, aurkeztu arte, Prin´en eriotz
ostean.

IIn Isabel erregiña ta Borboi´tar guztien aurka matxinatu zan Prin Jenerala, IIn
Isabel erbestera bota arte.

Prin, karlisten aurka ikusi ba gendun politikan sartu arte, eta Aurrerakoi alderdia
sortu ebanetik, espainitar gobernuaren zeregiñetan sakon sartuta. Bere katalan erriagaz
guztiz arduratuta be ikusi gendun, Marrokos, Turkia, Kuba, México, eta espainitarrek
orduan euki eben laterri-geografiko guztitik, borrokalaria ibili ondoren.

Arik eta 1.870eko urtean, Azaroaren 30ean, euki eban gaiztakeri zitalean, il eben arte.

-O´Donnell´tar Leopoldok be, karlisten alde euki ba ebezan bere senideak, bera, IIn
Isabelen gualozteetan Kapitaiñezko maillagaz lerrotuta ikusi gendun, karlisten aurka.

Bai, Marrokos´eko lurraldeetatik egon ziran matxintasun geienetan, ta gobernu-
aren erbesterako ministeritzaren lendakari lez. Bai ta lendakarizko ordegotzatan be ain-
beste bider, balio aundikoa izanda gaiñera. IIn Isabelegaz euki ebazan gaizkidetasun-
etik kanpo, garrantzi aundiko gizona zalako bere denboraldian.

Arik eta 1.866ko urtean Bagillaren 22an, San Jil´eko gualtegian sortu zan matxi-
nada ostean, O´Donnell´ek, Narbaez´eri eukan gobernuko agintaritzaz emon bearrean
agertuz, eta IIn Isabelegaz asarre, Biarritz´era atzerriratu zan arte.

1.870eko urtean eta Biarritzen egoala il zan O´Donnell´tar jaun au.

-Lizarraga ta Ezkiroz´tar Antonio be ikusi gendun, bere gogozko gudaritzatik
karlisten gualoztetan lerrotzen. Denboren irauteagaz, garrantzi aundienetariko na-
gusitza lortuz. Ta karlisten porrot ostean, VIIIn Karloseri atzerrira lagunduz, Erromara
bizitzen joan zan arte.

1.877ko urtean Abenduaren 7an, Erroman il zan.

-Saballs ta Massot´tar Franzizko, karlisten “Judas” gual nagusia be ikusi gendun,
bere ausartasun aundiko gauzak egiten, arik eta Frantziko Niza´ra aldatu zan arte.

-Ziraukiko La Kalle ta Yabar´tar Tirso, “Urgun” edo “el cojo de Zirauki”, liberalak
euki eben iltzaille madarikatu au be, ikusita.

-Martinez ta Kanpos´tar Arsenio, garrantzi aundiko liberalen gual nagusia be
ikusita gendun, zelan lagundu eutson XIIIn Alfonsori, bere erregetzazko ezar lekuan
ezartzen.

Gudalari aundia zala be, erakutsi eban karlisten aurka. Bai, bereak egiten be Kubatik, orokorreko kapitain lez.

Beren baliotasunagaitik Kanobasek, Ministruen Aolkularitzazko lendakari izendatu eban, bai ta berak euki eban indarragaz, konturatuta Kanobasen eskuetan panpiña bat ei zala, zelan aldatu zan Sagastaren aldera.

1.900eko urtean Iraillaren 23an, Zarautz'en il zan Martinez ta Kanpos'tar Arsenio au.

-Kesada ta Bizente'tar Jenaro au, espainitar liberalen guda nagusiekaz batera ibili zala, garrantzi aundiko ekintzak egiten ikusi geuntsozan, 1.794ko urtean Kuba'ren oiñez-taldeko 3garrengo txanberga edo batalloian lerrokatu zanetik.

1.808ko urtean Madrilleko Balaien Zaindaritzazko taldean lerrokatu zan Napoleonen aurka egiteko.

1.812ko urtean Konstituzioaren aurka egoteagaitik, zelan Frantzira atzerriratu bear izan zan.

Bai 1.834ko urtean, liberalak Zumalakarregiren aurka, borroka guztiak galtzen ebazanetik, liberal aldizkariak Kesadari botaten eutsezan erru guztiakaz, zelan alboratu eben bere agintaritzatik.

Eta 1.836ko urtearen Dagonillan, San Idelfonso Jai-etxe edo eguras-etxean sortu ziran matxintasunetik alde eginda. Madrilleko Iparraldetik, Ortalezako errian euki ebazan lagun batzuen etxera joan gura izan eban, eta andik ibili ziran jende-parrasta bategaitik, In Isabelen bularrezkol⁽¹⁾ zaldunak baiño ariñoago ikusi ebelako, zelan bertan il eban.

-XII In Alfonsoren ikas-bideak, errege al izatea, ezkontza ta euki zituzen semeak be ikusi gendun, gazte il zan arte.

-Kanobas eta Jauregi'tar Antonio'ren bizitza, bere garrantzi aundiko ekintzakaz be ikusi gendun, arik eta 1.828ko urtean Dagonillaren 8an Gipuzkoako Arrasaten dauan Santa Agedako urastegian, lege bageko batek, il eban arte.

-Mateo ta Sagasta'tar Práxedes be, bere maisutasun aundiagaz ikusten dogu.

Gauza guztien artean baiña, Kanobasek, Sagastagaz egiten ebazan jaurkintzaren politikazko ezker-eskumako truke-jokuak, izan ziran batez be barregarritzkoak, alderdi bikoien ekitaldizko aldatetetan ekarri dabena gaurko egunerarte, guzurrari eutsi ezinik.

Eta 1.812ko urtetik asi ta oraiñarte, bereztasunezko giza eskubideen aurka sortu izan diran maltzurkerizko guzur guztiak, guzurragaz asmatutako konstituzio ori egin ebenetik sorturikoak diran lez, nagusitzargoko konstituzio orrek, oiñarrietatik guzurrezko konstituzio edo iraspenna izate edo ekarteagaitik, danetarako menpea ta guzurra baiño beste arrazoirik ezin izan dabe erabili, guzurra elikatzeko, guzurra bear dabelako.

Euren artean, ta konstituzio orreri nai ta egin bear izan eutsoen aldakuntza ugarietatik, guzurraren legezko arauditasun orreik, zentzunean kokatzeko, ez ebelako iñungo arrazoi ta lekurik euki, ekanduaren egizko legez, bereztasunaren legez, edo zentzumenezko legez ezartzeko Euskaldun, Katalan eta Galleguaren aurka, zapaltzaillearen ekintzak egitera agertu dira beti, eta euren gurentzat, guzurra egi lez biurtzeko,

(1) Bularrezkol zaldunak = caballeria de los coraceros. Caballeros que llebaban coraza.

borrokak ta iltzeko keiñu gogorretan be ibili ba dira, beartuta agertu dira beti, guda-loztearen indarrak ibilten.

Daukien norkeriagaz, eritzi ezberdiñen irudiagaz agertzen jakiezan zentzunbageko gauza ortatik agertzen jakiezelako, euren arteko asarre guztiak, euren artean beti borrokan ibilteaz gaiñ, eta pitin pitinean batak besteari iltzeko keiñu edo meatxatu egin ondoren, atzerrira bialtzen ibili ziran, legezko arau guztiak, bakotzaren azalkera edo adierazpenean, guzurrezko legeakaz ibili izan bear ebazalako, beti ta gaur geiago, daukien nasketa edo naste-borraste orretan agertuz.

Orregaitik argi ikusten doguz, eurak be, bakotzaren eritzizko ulermen ezberdiñean agertzen dirala, eta guda-lozteen indarra euren eskuetan eukinda, gatz egiten jakiela, euren artean bakez ibilten be.

Ezkerrak, euren arteko menpearen alegiñatik alde egiteko, atzerritasuna euki ebela, bestela euren artean, danak ilarazi edo euren artean garbituko ziran.

Len, zoralditasun aundia izan zana, nai kanpo aldetik eta Erdiugarte onetan be, ta gaur eten barik, guda-bageko borrokan gabizelako ezeren zentzun barik, berezko-tasunezkoaren gaiñetik eskubitarrak, Nizeako IVn Gizalditik erabagi ta ziñezkintzatu eben asmoetatik ezer kendu edo damu barik, urrezko-tzekorraren sasijainkoarenak dabizelako egiten, ezeren zentzu barik.

-Karlisten bi edo irugarren gudaren amaiera be agertzen dogu, zeaztasun osoagaz, eta bere artean edo beragaz batera, Arana ta Goiri tar Sabinoren arrigarritzko bizitza, izt baltz ta izki etzanakaz eginda dagoena, gura dauenak, errezago artu dagian.

3. *12n Ataleko sarreraren aurkezpena, XIIIn Alfonsogaz asita.*

1.868ko urtearen Aintzagarrizko edo Ospagarrizko iraultzagaz⁽¹⁾, XIIIn Alfonso ume bat zala, kendu eben bere ama Isabel erregetzazko zeregiñetatik, Frantzira erbeste-razota.

Eta IIIn Isabel, bere senar Asis´eko Franzizko´gaz Parisen, bizitzeko bananduta bizi ba ziran be, bere amak, Europa zabaletik ibilteko euken aukera ori, oso aberasgarria agertu jakon XIIIn Alfonsori, Frantzez, Austriar, ta Ingalaterrak euki ebezan politikazko arauak, euren arlo edo eritzizko lekuetan esagutu ebazalako. Eta bera izan zalako Asturiaseko Printze guztitik, atzerriko mail andiko ikastexe ta gudari ikastetxetan ikasten ibili zana.

XIIIn Alfonso leen, Paris´eko Stanislas ikastetxean sartu eben.

1.869ko urtean Iraillaren 29an, XIIIn Alfonso´ren senidetatasuna, aldi baterako beintzat, Jinebrara aldatu zan, eta XIIIn Alfonsok ikastaro edo ikas-aldi bereziak artu arren, erriko Jakitun Batzarretara⁽²⁾ be joan zan.

XIIIn Alfonsoren urrengo ikasketak beteteko, Bienako Teresiana Errege ta Kaisarrezko Jakitunen Batzar ikastetxera joan zan.

Askenean, Ingalaterrako Sandhurst Guda-ikastetxean sartuz, erri orretan Ingeles´tarren batzangotasunezko konstituzioaren legeak esagutuko ebazan.

(1) Aintzagarrizko edo Ospagarrizko Iraultza = Revolución de la Gloriosa´lez esagutu zana. (2) Jakitun Batzarrera = Academia Pública de esa ciudad Cantonal.

Denbora onetan, II In Isabelek euki zituzen diru estatusunak jakiten dira, XII In Alfonsok, bere ikas tokietatik eskutitz, amarekin euki ebazan kontakizunen bidetik.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean II In Isabelek Paris´en siñatu eban agiriakaz, bere seme XII In Alfonsoren eskuetan itzi ebazan erregetzazko ardura guztiak, espainitarrek, legezko errege lez artu egien.

Espainitarren arteko bitartean, jaurkintz ezberdiñak aldatu ziran:

1.868-1.870eko urte bitartean, aldi baterako sortu zan jaurkintza⁽¹⁾.

1.870-1873ko urte bitartean, I Amadeo´ren demokrazizko jaurkintza.

Eta 1.873-1.874ko urte bitartean, I Errepublika.

1.874ko urtearen Urtarrilan ezereztu zan I Errepublika au, eta bizia euki eban, arik eta Pabia gudal nagusiak, Laterrien aurkako matxinada egin arte, bigarren aldia zabaldu egin ebana, sortuko ziran jaurkintz baragarrientzat.

Sei urteko epe aldi demokratiko? oneitan, XII In Alfonsoren gorteko eskubideak, Jauretze edo Gaztelu ta Kanobas´tar Antoniogaitik bideratuta egon ziran.

1. 4. *XII In Alfonso, errege al izatera.*

1.874ko urtean Abenduaren 1eko egunean XII In Alfonsok, Ingalaterraren Egoaldeko Sandhurst⁽²⁾ erritxoan, Ingelesak sortutako gudari ikastetxetik, eta XII In Alfonso⁽³⁾ bertan ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen aurkezpenean, au esaten eutsoen: “Bera, katolikoa, espainitarra, konstituzio barriaren aldekoa, liberala, eta espainitarrai serbitzeko gogoz beteta, egoan gizona zala”.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez ta Kanpos´tar Arseniok Balentziako Saguntotik, XII In Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztu egin zan erregetzazko jaurkintza Erdiugarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gaiñetik. Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari, eta Sagasta, gobernuaren Jaurleri.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, gobernuaren agintarizko agiri bategaz, Ordezko Ministeritza ezarri zan espainitarren lurraldean, XII In Alfonso etorriarte edo adiñ neurrira elduarte, Kanobasek, lendakari lez zuzendu zedin.

1.875eko urtearen Urtarrillan eldu zan XII In Alfonso Erdiugarte onetara, eta errege lez aldarrikatu eben espainitar gorreen aurrean.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an XII In Alfonsok, Kanobas izendatu eban Minis-truen Aolkularitzazko Batzordearen Lendakari, bai ta beste ministruen lanpostuak be.

Bere erregetza geien, espainitar errege leiñuen sendotzea, ta konstituzioaren ezarpena gogortu edo ta finkatzea zan, sei urtetan guzurrez betetako estabaidakaz eta matxinatuzko zalantzan, ain txarto geratu ziranak.

Orren ekintzagaitik “Pakejillaren” guzurrezko izena irabazi eban. Eta guzurrean zaldikatuta gagozelako 325eko urtetik edo Nizeako eleiz-kaisar batzarretik ona, ekintza guztiak, guda indarrez edo izkillu bidez egin bear izan dira, “guzurra, egi lez, ezin leikelako aurkeztu edo biurtu”.

(1) Aldi baterako sortu zan jaurkintza = gobierno provisional. (2) Sandhurst = Ingalaterraren Egoaldean, Berkshire´ko errian dagoena, 1.802ko urtean Ingelesak sortu eben gudarien ikastetxetik, XII In Alfonsok, bertatik ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen bere aurkezpene errege lez. (3) Berritzailetasunezko aldiari asiera emon = su reinado dió fin a la 1ª república y comienzo a época de la restauración.



®

1.875eko urtean Otsaillaren 13an XII In Alfonso errege lez egoala, beste agintaritzazko agiriekaz, ararte egon zan Ordezko Ministeritza kendu zan. Ez XII In Alfonso egon zalako bakarrik, geienetan, ezin ebelako bakez eroan, ezeren zentzunezko agindurik.

325eko urtetik, Katolikotasunezko aberriaren kaisertzazko guzurrian ezarrita, eta dan guztia katolikotasunezko aberkidetzaren guzurragez, egia zikindu zalako asieratik, gauza bat bera esanda be, ez zan oldoztu bakearen edo berezko arrazoiaren eritziarik edesti guztian.

Guzurrak, guzurrezko zentzuakaz bakarrik alkartu bear ziralako, eta berezetasunaren legez, guzurra oiñarrietatik asten dalako okertzen, kanpoko alegiñ orreik egitan biurtzeko, zentzun edo ta zuzentasunezko bidera eroateko alegiñetan, borrokak baiño besterik ez dabe sortzen. “Guzurrak”, “Egitan” biurtu gura ezkeru, gaur sortzen dan lez.

Jakiña da, edo berezetasunezko legea izateagaitik, argi agertzen jaku: “Bolbora edo lerrautsa, piztutako poxpollo bategaz zorro baten sartu ezkeru” eztanda egiten dauala, egia ta guzurra Izadi onetan, Goiko Jaungoiko Irasleen legeakaz, benetako aurkariak diralako.

1.876ko urtean onartu eben espainitarrek konstituzio barri ori, karlisten borroka amaitu ondoren. VII In Karlos bera be egon zan, azken borroka orren porrota ikusten.

Euskal-Nafar, Katalan eta Galleguen foruak be murriztu ebazan, errigizarte oiek guztiz minduta itziz. Kubako ugartearen, Zanjón'eko ongundeagez bake antzeko bat lortuko eben, ez ebena balio ezer, kubatarrek, laster lortu ebelako euren askatasuna.

1.878-1.879ko urtetan XII In Alfonsori, legearen etsaiezkoak edo legebagekoak⁽¹⁾ be, gaiztakeri bi egin eutsoezan, bera, min barik urtenda.

1.883ko urtean XII In Alfonsok, Belgika, Austria, Alemania ta Frantzira joan zan agintezko ikuste bat egitera.

Eta Alemanian, Alsaziako gudari-zaintzazko taldearen oorezko koronelaren ize-nagaz jantzi gura eben, Alfonsok onartu ebana, eta Frantzezari irabazitako lurraldea izan zan lez, oso asarre agertu ziran oneik Alfonsorekin. Parisera joan zanean, ondo baiño obeto erakutsi eutsoena.

1.885eko urtean Alemanak, eurentzat gura ebazan, Itsas-Nausian, espainitarrenak ziran Karolinako ugarteak, eta bion artean borrokan egiteko prest agertuta, urte onetan egin eben espainitar-Aleman ongundeko batzarrean, jabetasuna espainitarren alde geratu arren, Karolinaseko ugarteetan espainitarren aldetik, Alemandarrak gudarako gura eben itsas-kai bat eraikitako eskubidea galdu eben, bai ta, Alemaniaren alde geratu ziran Marsall'eko ugarteak.

1.885eko urte orretan, beazun edo gibel-ur beltz'eko izurri edo elderria⁽²⁾ zabaldu zan Balentziatik, Erdiugarte onen erdirantza zabaltzen asi zana, eta XII In Alfonso Aranjuezera eldu zanean, gaixoak ikusi gura ebazala esan eban, eta Jauregiko Kanobasek espainitarren gobernuko leen ministruek, Alfonsok euren kutsapenaren arriskuagaitik, ezetza emon arren, XII In Alfonso iñori jaramonik egin barik joan zan gaixo orreik ikustera.

Bertara eldu zanean, eta zaindarizko gudariak sartu zitezzen, erregeak, jauregiaren atea zabaldu egiezala agindu eban.

Eta guzti orreik egin ostean, gaixoak ikustera joan zan, auek lasaitasunean ezar gurean, laguntzak banatuaz batera.

(1) Legebagekoak edo lege-etsaiezkoak = Ácratas, anarquistas. (2) Beazun edo gibel-ur beltz'eko izurri edo elderria = epidemia de cólera.

Kanobasen gobernukoak, jakin ebenean erregeak egin ebenagaz, bereala bialdu ebazan orokorrezko kapitaiña, zuzentasunerako ministrua, eta gizartearen jaurlaria, erregeari ostera barkamena eskatuz Madrillera eroan egien. Madrilleko erritarak ori jakin ebenan, bidera urten eutsoen, eta zaldiak gurdiaren lotutasunetik askatuz, eurak eroan eben zalgurdi ori erregeen jauregirarte.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIIn Alfonso gaitzepelezko⁽¹⁾ gaixotasunagaz.

1. 5. *XIIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba-seeak.*

Birritan ezkondu zan XIIIn Alfonso au:

1.878ko urtean Urtarrillaren 23an Maria de las Mercedes de Orleáns, Montpensier´eko dukeen alaba zanagaz, bost illabete barru, sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana⁽²⁾.

Eta 1.879ko urtean Azillaren 29an Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristinagaz, I Frantzizko Jose Austriako Kaiserraren bigarren lengusiñagaz.

Eta iru alaba-seme euki ebazan onegaz:

1.880 jaio ta 1.904ko urtean il zan Mercedes´eko Maria, Asturiaseko printzea zana, espainitar erregearen alaba izateagaitik, eta Bi Sisiliako Borbon´tar Karlosekin⁽³⁾ ezkondu zana.

1.882ko urtean jaio ta 1.912ko urtean il zan, Maria Teresa, espainitar erregearen alaba. Babierako Fernandogaz ezkondu zana.

1.885eko urtean, XIIIn Alfonso il da gero, 1.886ko urtean jaio zan semea, gero, XIIIIn Alfonsoren izenagaz errege izango zana, eta Battenberg´eko Bitoria Eujeniagaz ezkonduko zana. 1.941eko urtean il zan.

XIIIn Alfonsok, beste seme bi be euki ebazan, Sanz´tar Elena abeslariagaz:

1.880ko urtean jaio ta 1.970eko urtean il zan Alfonso.

Eta 1.880ko urtean jaio ta 1.922ko urtean il zan Fernando.

XIIIn Alfonsoren emazte Maria Kristina, 1.902ko urterarte izango zan, XIIIIn Alfonso, bere semearen errege ordea.

6. *12n atalean sartu orduko, 1´go Errepubliketa gogoratuko dogu.*

1.873ko urtean Otsaillaren 11n uko egin eutson Saboyako I´go Amadeok espainitar erregetzari, eta 13an espainitar erregetzatik alde egin eban ordutik, Bagillako illean, erritarrak eskatuta, I´go Errepubliketa aldarrikatu zan.

1.874ko urtearen Abenduko 29raíño, edo 11 illabetetan iraun ebana, Saguntoko urian Kanpos´tar Martinez´ek, XIIIn Alfonso´ren izena errege lez aldarrikatu eban arte, edo ekintza onegaz, Errepublikako jaurkintza ezereztu zan arte.

1.874ko urtean Abenduaren 29an espainitar gobernukoak, susmo txarrean euki eban Kanpos´tar Martinez ori, eta atzerriratzea erabagi eben.

Kanpos´tar Martinezek oartuta baiña, ta Balentziako Alfonsinoak ezkatzen eutsoelako, Abilara doielakoan, Saguntora joan zan artez, bertan bere aldarrikapena egiteko.

(1) Gaitzepelezko gaixotasuna = tuberculosis. (2) Sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana = que murió de tifus.

(3) Bi Sisiliako Borbon´tar Karlos = 1.870eko urtean jaio ta 1.949ko urtean il.



Bitartean baiña, Ramirez de Arellano ta Laban´tar Luis orokorrezko kapitaiñaren ordezkok, bere Segorbeko gudaloztearen zati bategaz, bertora joan zan.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, gudari orreikaz lauki bat eginda, Kanpos´tar Martinez´ek eurari begira, II In Isabelen seme XII In Alfonso aldarrikatu eban espainitarren errege lez.

Serrano guda nagusia, orduko denboran gobernuko leen ministrua izanda, Kanpos´tar Martinez´ek egin eban aldarrikapenari, ez eutson ezer esan, eta XII In Alfonso geratu zan Borboien leiñuzko errege lez.

11 illabete oneitan, lau “Errepublikaren Alkarteko Alderdi”ren⁽¹⁾ lendakariak aldatu ziran, espainitar jaurkintzaren agintaritzatik, arik eta 1.974ko urtearen Urtarrillako 3an Pabia´tar Jeneralak matxinatuz, espainitar gobernuagaz egin zan arte.

Serrano ta Domingez´tar Franzizko guda nagusia izan zan, espainitar Errepublikako konstituzioaren alderdiko jaurkintza orren agintari nagusi lez, jauntxoaren arauzko⁽²⁾ gogortasunean. Jaurbide orren bizitzazko 11 illabete orreik, iru borroka nagusiek mugatuta geratu zana: Karlisten irugarren guda; Erki-Zaleen⁽³⁾ matxintasuna”; ta Kuba´ren amar urteko gudagaz.

Figeras´tar Estanislaoen I go Errepublikako ekitaldi au, sei urteko sasi-demokraziaren barrutik, bai ta eztabaida askoren artetik, eta 1.868ko matxintasunetik, 1.870eko urtean jaio zan, I Amadeon jaurbidea, Kanpos´tar Martinez´ek Sagunton egin eban aldarrikapeneraño iraun ebena.

Aipatzekoa da emen, txalo askoren artean onartu zan Kastelar´tar Emilio´ren izketea: *Señores “con Fernando VII murió la monarquía tradicional”, “con la fuga de Isabel II, la monarquía parlamentaria”; “y con la renuncia de Don Amadeo Iº de Saboya, la monarquía democrática”. “Nadie a acabado con ella, ha muerto por sí misma”.*

Nadie trae la República la traen todas las circunstancias, la trae una conjuración de la sociedad, de la naturaleza, y de la historia”.

“Señores, saludémosla como el sol que se levanta por su propia fuerza en el cielo de nuestra patria”.

Eta emen itaun aundiena: Noren eskubidetik eukiko ote dabe euren espainitar Aita-Ama, ta Nortasunezko izkuntza: Izkuntza, Euskaldun eta Erromatarren arteko borrokatik, urten eban Gaztelerea edo ganorabageko izkuntz ori ba da⁽⁴⁾, ta gurasoen aitortza edo etorrerea, Erromatar-Godoak, I Silbestre aita Santua ta Osio Kordobako gotzaiñagaz asmatu eben Katolikoan Aberkideztatik agertzen bada ?.

Orko bidetik Aita-Amaren etorreratik “Patria” izan edo eukiteko, ez daukie ezerren arrazoirik, eta orregaitik gitxiago, iñungo eskubiderik.

Euskadi, Kataluña, ta Galleguak, bai alderantziz. Eta uskaldunak barriz, milla urte askoren ziñespidezko aitorreragaz ziurtuz.

Eta jakiteko zelango zorotasunezko ekintzak ekarten dauazan maltzur ta guzurrezko jaurbide batek: “guzurra” “egiz”, ezindalako biurtu, Errepublikak euki eban Fi-

(1) Errepublikaren Alkarteko Alderdiaren = Partido Republicano Federal. (2) Jauntxoaren arauzko jaurbidea = gobierno dictatorial. (3) Erki-zaleen matxintasuna = Rebelión de las provincias cantorales, que pretendían mayor autonomía. Que no eran cantorales todas éstas regiones, porque Euskadi, Cataluña, y Galicia” son naciones de identidad y personalidad propias, que hoy aún están sin resolver por imperiosidad de los españoles, como es la Ley de los Territorios Históricos L.T.H. de ésta península. (4) Gazteleraizko izkuntz baragarriagaz = muchos interesados españoles, le dan título de “romance” que quiere decir derivado del latín, en Euskera “Latin Kumea” no queriendo hacer notar que fué contra el idioma euskérico su formación forzosa, deforme, o no cultural.

geras´tar Estanislaoaren lenengoko lendakariak, ministroaren batzarra ollo-toki baten antzera biurtuta egoanean, esan ebazan berbak aurkeztuko dautsuedaz:

“Señores, ya no aguanto más. Voy a serles franco: ¡ estoy hasta los cojones de todos nosotros”.

Ortik aurrera egin ziran aldaketa guztiak, gobernuarenak eta Pabia´tar Manuelen⁽¹⁾ alegiñak lez, danak izan ziran eurak euki eben guzurrezko legeen kanpotik, zorotasunezko ekintza baten.

1.874ko urtean ta Abenduko 29an dana dala, amaitu ziran Igo Errepublikaren ekimenak.

Martinez ta Kanpos´tar Arseniok, Balentziako Saguntotik, XIIIn Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztuta geratu zan erregetzazko jaurkintza Erdiurgarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gaiñetik.

Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari nagusi, eta Sagasta, gobernuaren jaurlari.

2. Euskalerrriaren edestian, XIIIIn Ataleko gaia´ren asiera.

2. 1. XIIIIn Alfonsoren bizitza eta erregetza.

1.885eko urtean Azillaren 25ean eta 27 urte eukezala XIIIn Alfonso il zanean, Mateo ta Sagasta´tar Praxedesen gobernu, larri aldi gogor baten sartu zan, erregeen ondorengo gora beran, Absburgoko ta Lorena´tar Maria Kristina erregiñak bere aurgitean, jakin arte mutilla edo neskea izango zan, jaioko zana.

Arazo gogorra izan zan, 1.880ko urtean leen jaioko zan Mercedes´tar Maria, neskea izan arren, Asturiaseko printzea izendatuta egoalako.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIIn Alfonso gaitzepeleko gaixotasunagaz, oraindiño, sei illabete eta 13 egun geratuz, XIIIIn Alfonso bere semea, jaioko zedin.

1.885eko urtetik 1.902ko urteraiño eroan eban bere ama Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristinak, XIIIIn Alfonso “El Africano” deituko eutsoen, erregetzako ordegetza.

1.886ko urtean Madrillen, Loraillaren 17an jaioko zan XIIIIn Alfonso “Afrikarra”, eta 1.941eko urtearen Otsaillako 28an, Erroman il.

XIIIn Alfonso erregearen, il-osteko semea izanda, bere amak eroan eban bateatzen, eta izen oneik ipiñi eutsozan: “Borbon eta Absburgo Lorenako Alfonso, Leon, Fernando Maria, Jaime, Isidro Paskual, eta Antonio”.

Eta 1.886ko urtean Loraillaren 17an XIIIIn Alfonso jaioko zanean, bereala izendatu eben errege. Europako edestian, beragaz bakarrik izanda alango gauzarik leenengoz egiten zana.

1.888ko urtean espainitarrak argiratu ebezan legeak, lotsabagekerizko txantxa bat bakarrik izan zan Euskaldun, Katalan eta Galleguarentzat, euren barnean eukun lapurrezko kaisar asmo maltzurrekin, jakin ebelako, lapurretan ibili zirela guzurrezko ekintzakaz.

Eta edestia ain luzea izanda, iflorentzat ez zan bear izan arritzeko gauzarik, Fazitzak euren menperatzaillen ekintzatan, maltzur, guzur eta izkilluaren indar bidez

(1) Pavia´tar Manuel = Lacy ta Pavia´tar Manuel = Nacido en Granada el año 1.849, y muerto en Madrid el año de 1.896.



®

egiten dabelako, egiten daben guztia, besteak, bizi alegiñez edo daukien aberastasun edo mozkin guztiak, eurentzat gure dabezalako.

Beste gauza txar batzuk be, sortu jakuzan euskaldunai ortik aurrera, euskal izaeran, ainbeste milla urtearen azturazko ikas bidetik, gartsu edo oldartsu⁽¹⁾ biurtu giñan lez, edesti guztian antzera, beti al izan garela edozein ekiñaldiko lanbidetik bizitzeko gai, bai ta berori lortzeko edo ta sortzeko be, bear doguzenak egin. Eta erromatar-godo-katoliko-merkantil espainitar aberkide orreik, euki eben maltzurrezko indar ta apaindutako guzur aundiakaz, Mundu osoa eurak kontrolatoko gai dirala ikusi ebenean, oso osoan joan zirela gure barnean daukaguzan oldozmeneko almen orreik lapurtzera. “Euskal Nortasuna gura eben Lapurtu” batez be. Almen ori, Goiko Jaun Iraslearen eskuetan dago bakarrik, baiña.

Ez dira konturatzen, lapurtza orreik, erri-iltzaillearen eritzizkoarenak direla, Mundu onek Jaungoiko Iraslearen Legebideetik, Lege orreik, eurak, Fazizten ekanduan biurtzen dabezelako, nai ta guk, gura ez arren.

Eta Frankori, bere ospe andiko bost urte egitamuarekin bardin sortu jakon⁽²⁾: “espainitar Langilleak, prest egon zirela, guk egiten genduzan lanak lapurrezko bidetik eurak egiteko”.

Lantegiak euren arrotzeko lurraldetan ipiñi ebezan, gu beartsutasunean ezartzeko, eta eurak daukien “katolikotasunaren aberkidetzazko” erlijiozko asmo orreitan, Euskaldunak, nokeri orretaz bat egiteko: Zaragoza, Balentzia, Galizia eta Andaluzian ipiñi ziran lantegi guztiak, azken gaizto edo utsegite andi bat bakarrik euki ebena.

Eta ez ziran izan gai, aurrerrantzean, burni langintza orreik aurrera atarateko.

Baiña Euskalerrarentzat zoritxarrena batez be, gauza guzti oneik, gure arteko abertzale ez ziran jauntxo aberatsarekin edo aberatsak izan guretik agertu zirala da.

1.892ko urtean ez da arritzekoa Somorrostroko idazkariak, bere agiri baten auxe esatea: *“Esta cuenca, que ha contribuido al noventa y uno por ciento de la producción total, está acaparada por los ingleses”*.

1.898ko urtean eta Estatu Batuek kolonietako borrokatan eskua sartuz, espainitarak, Kuba, Aberats-Kaia⁽³⁾, Filipinas eta Guam´eko ugartearen lurraldeak galdu ebazan.

Eta 1.898ko zori-gaiztoko urtea, deituko jakon ekintza guzti oneri, espainitarren artean.

XIIIIn Alfonso espainitarren errege lez, bere jaiotzatik, 1.931ko urtean Jorrailaren 14an IIIn Errepubliketa aldarrikatu zan arte iraun eban.

XIIIIn Alfonsoren errege denboran, lau arazo aundi sortuko ziran, liberal erregeztakaz amaituko ebena:

- a). -“Politika arloan, alkarte edo errigizarte askotan, ordezko arduradun barik egon zirala”.
- b). -“Be maillako erritarren larrialdia, eta batez be nekazarien artean, ezintasunezko egoera larrian sartu zirala”.
- d). -“Rif´eko borrokak, odol-ixuriaz, ta arazo aundi ta larriakaz agertuko zirala”.
- e). -Eta espainitar kaisar agindutik, eta bai ta auek egiten ebazan gudalozteen keiñuakaz, Kataluñako aberkideen askatasunetik, agertzen zirala eten bageko arazo larriak.

(1) Gartsu edo ta oldartsua = fervoroso, ardiente, devoto, piadoso, emprendedor, entusiasta, decidido, apasionado. Decidido, resuelto, audaz, violento, audaz. (2) Frankoren bost urteko egitamu = los planes quinquenales de Franco. (3) Aberats-Kaia = Puerto Rico.

1.898ko urtean, Ameriketako Estatu Batuaren ondorioz sortu zan politikazko uerdura edo uberduragaz⁽¹⁾, turnisten alderdi liberalai, ez eutsela itzi demokrazian ezartzen, eta bereala bideratu ebazan gauza guztiak Ribera ta Primotar Migelek⁽²⁾, XIIIIn Alfonsok onartu eutsonean, bere jaun-txarrezko gobernua ezarri zedin.

XIIIIn Alfonsok, jauntzargoko gobernu onen politikagaz, demokrazizko politika bat gura eban berrezkuratu, político guztiak baiña, lepoa emon eutsoen, Primo ta Ribera tar Migel'eri, lagundu eutsolako jauntzarrezko gobernu ori ezartzen.

XXgarrenengo gizaldiaren sarreran, ta kolonigilleak batez be, egin ebezan lurraldeko zatiketarik, kolonietako arazoak asi ziran ugaritzen, ta oraingoan, Marrokos'en Iparraldetik, Rif'eko borroka orreitatik iraingarriz⁽³⁾, ikaragarritzko odoltizko⁽⁴⁾ borrokak ekarri ebazan.

2. 2. (30) 1.899ko urtean Jorraillaren 23an Bilbon.

Euskal-Biltokia zabaltzen da, Sabino ta Luis anai sortzailleak izan da, bilgune orren ibilteko lege ta arauak osotu egingo ebazanak.

Elkarte onegaz Arana tar anaiak gure ebena, alkarte zabal bat izatea, erriko bazkide artetik kide geiago batzeko, eta alkarte onetara, Euskaldun Batzokiya, Euskalerrria, eta Alkartasunezkoak batu ziran.

Bere leenengo lendakaria Arriaga tar Emiliano izan zan.

1.899ko urtean Jorraillaren 30ean, Bermeoko Batzokija zabaltzen da, eta beren araudiak, Sabinok osoz antolatu ebazan.

Bermeoko Batzokijak euki eban leenengo lendakaria, Goitia tar Benancio izan zan.

1.899ko urtean Loraillaren 14an, Udaleko auteskundeak ospatu ziran, eta euskal alderditik Bilbon 5 zinegotzi, beste ainbeste Bermion, eta batzuk geiago Arteagako errian. Mundakan, Euskal abertzaletasunaren leenengo alkatea aukeratu zan.

1.899ko urtean Iraillaren 6an, Arana ta Goiri tar Luis, Paulina eta Sabinok, gaurko Sabin-Etxea erosten dabe.

Denbora gitzi barru, etxe ori saldu bear dabe, Arana ta Goiri tar anaien diruzko arazoetatik urteteko.

1.899ko urtean Iraillaren 12an espainitarrak, legezko agiri bat atara eben, Bizkaiko erritarren-eskubideak kentzen ebazanak, Silbela ren gobernukoak ikaratu egin zirala-ko, euskaldunak auteskunde orretan, atara ebazan autarkiakin.

Gaur ez da urrun joan bear ori berori ikusteko, katalanakaz be ori egiten dabelako. Eta len esan dogun lez, ez da besterik, "guzurrean zaldikatuta ibilteagaitik, guda indarra eroan bear dabelako".

(1) Uerdura edo uberdura = turbulencia, turbiedad. Turbulentamente = zalapartan, zarataz, iskanbillaz. Turbulento = zalapartari, burrunbari, erri-nasle, ta abar. (2) Ribera ta Primo tar Migel = 1.870ean Kadizeko lurraldean Mugado Jerez en jaioa eta 1.930eko urtean Paris en ildakoa. Marrokos, Kuba eta Filipinaseko gudaldietan ibili zana; 1.923ko urtean Kataluñaiko Orokorrezko Kapitaiña izanda, espainitarren jaurkintzagaz jabetu zan eta gudalarien gobernu edo Buru Batzar bat ipiñi eban; 1.927ko urtean espainitar aberriaren biltzar bat antolatuta; 1.930eko urtean yeregin bear izan eban gobernu ori eta Frantzira atzeriratu zan. (3) Rif'eko borroka orreik iraingarriz = las luchas de Marruekos en el Rif, fueron vituperables, censurables, injurias, y afrentosas. (4) Ikaragarritzko odolziak = que fueron tremendamente crueles y sangrientas.



Ekintza orreik daukaz zuzenean "kaisarrezko Jaun-txargoakaz ibili ez-gero.

Ekintza onekin, Bilbon Euskal-Biltokia, ta Euskeria Abesbatza. Bermion, Batzokija, eta Barakaldon, Euskalduna-Alkartea, zarratu eben. Bai ta "Correo Vasco" izparrangia.

1.899ko urtean Iraillaren 15ean, "Correo Vasco"ren asken alea atara zan. Bai ta asteroko "Euskalduna"ren izparrangia, ertsi edo itzi ebezalako.

1.899ko urtearen Azillan, Arana ta Goiri tar Luis Euskal Iparraldeko atzerrira joaten da, Sabino, Sukarrietara joanda bizitzen. Sabin-Etxea saldu zan urte onetan.

1.900eko urtean Arana ta Goiri tar Sabino, Atxikallende tar Nikole gaz ezkontzen da.

1.900'eko Jorraillren 13an Luis'ek, E.A.J.'eko Alderdia ta Pizkundiko argitaletxea ukatu egiten dauz, bera Iparraldean bizi zalako.

1.900'eko urtean Uztaillaren amaieran, erki jaurlari edo guda-jaurlariak, joan zan urteko Iraillan ertsitu edo itxi ebazan euskaldun erakunde guztiak, zabaltzeko agindu eban, asteroko "Euskalduna" izparrangia be agertuz.

1.901eko Urtarrillaren 10ean, Bizkai Buru Batzarra ren lendakaria aukeratzan dabe. Sabino bera urtenda barriro. Eta leenengoz lendakari ordezeko lez, Zabala tar Aingeru aukeratzan dabe.

1.901eko urtearen Epaillan, leenengoz agertzen da iru illabeteko Euzkadi aldizkaria.

1.901eko Dagonillaren 23an espainitar erri irakaskintza eta arte ederraren guber-nuko ministrak, 1.896ko Epaillaren 6an, Oñate ta Euskal ikastetxe nagusiari emon jakien baimenezko legeak, indargabe geratu zirala esan eben, ta aginte orren ostean, Euskal irakaskintza ortik aurrera eroateko, ikastetxe nagusi barik geratu giñan.

1.901eko urtean Urrillaren 27an, "La Patria" astekaria agertzen da leenengoz.

1.901eko Azillan, "Eusko-Gaztedi" elkartea agertzen da leenengoz, Bilbaoko Gazteen⁽¹⁾ aita edo aurreko erakundea, izango zana.

1.901eko Azillaren 10ean, Udaleko auteskunde barri batzuk ospatzen dira, Bilbon sei zinegotzi geiago atarata, guztiz 11rarte elduta, eta Bermion iru geiagoagaz zortzi-raino eldu zana.

1.901eko urtean Loraillaren 2an, Bilbon ta militararak, Biboren azken ingurutasuna ospatzen ebelako, jantzan ibili ziran ingurutik urtenda, Euskal-Biltokira urreratu ziran, eta barrura sartuz, ikusi eben guztia ipiñi eben ankaz gora, bai triskantza aundiak egin.

2. 3. XIII In Alfonso ostera artuz.

1.902ko urtean Loraillaren 17an XIII In Alfonsok, 16 urte bete egin zituzenean, adiñean nagusi lez izendatuta, artu eban espainitar Laterriaren zuzentasunezko agintea.

1.902ko urtean Urtarrillaren 1eko egunean, eta bere eguneroko liburutxoan idazten ebanatik artuta, auxe idatzi eban XIII In Alfonsok:

En este año me encargaré de las riendas del estado, acto de suma trascendencia tal como están las cosas, porque de mí depende si ha de quedar en España la monarquía borbónica o la república; porque yo me encuentro el país quebrantado por nuestras pasadas guerras, que

(1) Bilbaoko Gazteen aita izango zana = padre de "Juventud Vasca".

anhela por un alguien que lo saque de esa situación. La reforma social a favor de las clases necesitadas, el ejército con una organización atrasada a los adelantos modernos, la marina sin barcos, la bandera ultrajada, los gobernadores y alcaldes que no cumplen las leyes, etc. En fin, todos los servicios desorganizados y mal atendidos. Yo puedo ser un rey que se llene de gloria regenerando a la patria, cuyo nombre pase a la Historia como recuerdo imperecedero de su reinado, pero también puedo ser un rey que no gobierne, que sea gobernado por sus ministros y por fin puesto en la frontera. (...) Yo espero reinar en España como Rey justo. Espero al mismo tiempo regenerar la patria y hacerla, si no poderosa, al menos buscada, o sea, que la busquen como aliada. Si Dios quiere para bien de España.

XIII In Alfonso bere erregetzan, Erdiugarte onen lurralde guztiak ikusten ebazan, bai ta Alemania, Ingalaterra, ta Frantzikoak be, ostera naikoak eginda.

Eta Frantzian, Paris ´eko kaleetan ibilita Errepublikako lendakari zan, Loubet ´tar Emile ´kin, txarkeri edo gaiztakeri gogor bat euki eben, biok ondo edo, zauri barik urten da.

2. 4. (31) **1.902ko urtean Lorailaren 25ean.**

Arana ta Goiri ´tar Sabinok idatzita, eskutitz bat bialtzen dautso Grijalba ´tar Pedrorri, Urrutizkiñatik bialduta, Estatu-Batuen Roosevelt ´tar Theodore Lendakaria izan zanari, zorionak emoteko aginduten eutsoena, Kubaren askatasuna lortzeko, emon eban laguntzagaitik.

Grijalbatar Pedrok, Urrutizkiñako arduradunari emon eutson mezu ori. Urrutizkiñ orren arduradunak baiña, sekula be ez eban bialdu mezu ori, eta alderantziz, Sabino salatu eban, andik bost egun barrura, Larrinagako espetxean giltzapetuz.

1.902ko urtean Ekaiñaren 18an, Erki-Jaurliariak Bilbaoko E.A.J.leko zinegotziak kendu ebazan euren ardurazko lanetatik, 13 egun ariñago, injimar⁽¹⁾ itsasontziaren kapitaiñari, ongi etorria emon eutsolako.

1.902ko Bagillaren 22an, Arana ´tar Sabinok idatzita, idaz lan bat urten eban La Patria astekarian ezerezen izenpe barik: “Grave y Trascendental” izen buruagaz agertu zana. Bertan, euskal abertzaleari espainitar agintariak egiten eutsoezan eraso, guda ta espetxeen keiñu, bai ta, sarri askotako gogorkeriak, ekarten ebanak.

1.902ko urtean Urrillaren 14an, espainitarren aolkularitzazko ministruak, jaramon eginbage itzi eban, Sabino espetxetik atara egien, 9.000 laguntzazko izenpeakaz joan zan euskal abertzaleen eskaria. Illabete batzuk ariñautik “Addison” en gaitzaldiaz, oso txarto egon zalako.

1.902ko urtean Azillako 8an, espainitar epailleak, Sabinoren aurka egun bat ariñago asi eban epaiketetan, “urrutizkiñatik Laterri Batuetako lendakariari zorionak emon gura eutsoezelako”, aske edo ezerezen zigor barik itzi eban.

1.902ko urtean Azillaren 20an, Sabino aske itzi ebalako, eta salari-gelakoak beste gora-bide edo jo-bide bat artuko ebelakoan, Sabinok, Luzaidetik muga aldatu eban, frantzezaren lurraldean babesteko.

1.902ko urtean Abenduaren 1ean, Buenos-Aires ´en asten da argitaratzen euskal “Irrintzi” aldizkaria. Ameriketako lurraldeetan argitaratzen zan, leenengoa izan zana.

(1) Injimar = barco grande, fragata.



Ⓔ

1.903ko urtearen Urtarrillan Arana'tar Sabino, ostera etorten da Sukarrietara, oso gaiso egon zalako.

1.903ko urtean Otsaillaren 13an, Eusko-Alderdi-Jeltzalekoak, laguntzazko erabagi batera eldu ziran Urkijo'tar Jose Maria'rekin, onek diputaduen agiria lortu egien.

1.903ko urtearen Epaillan Sabinok, amaitu eban lurraldearen diputadu izateagaz, eta Diputazio barriaren auteskundeetarako, Txalboud'tar Pedro Bilbotik aukeratuko eban, eta Gernikako lurraldetik, Zabala'tar Aingeru.

1.903ko urtean Sabinok, askeneko eres-antzerkiko idaz lan "LIBE" argitaratuko eban.

1.903ko urtean Jorraillaren 26an eta E.A.J.leko laguntzarekin, Urkijo'tar Jose Mari urten eban diputadu, Bilbaoko lurraldetik.

1.903ko urtean Dagonillako 14an Ondarrun, "Euskal-Lagun-Artea" ipiñi eutsoen izen buruagaz zabaldu zan, euskal alkarte barria.

1.903ko urtean Iraillaren 30ean, Arana ta Goiri'tar Sabino oso txarto ibili zalako bere gaisotasunagaz, E.A.J.leko lendaritzaz izten dau, bere ordezkari Zabala'tar Aingeru ipiñita.

1.903ko urtean Azillaren 8ko auteskundeetan E.A.J.koak 5 zinegotzi lortu ebazan Bilboren Udalerako.

1.903ko urtean Azillaren 25ean, eta goizeko seirak zirela il zan Arana ta Goiri'tar Sabino, 38 urte eukazala.

1.904ko urtean Urtarrillaren 3an, Kortez'tar Migelek La Patria astekarian: "¿Zer dan Abertzaletasuna?", argitu eban idaz lanagaz, 1.839ko urtean Urrillaren 25eko egunean euskaldunai, lepo gainean ipiñi euskuen espainitar konstituziozko legea, kentzeko zala, bai ta ondore, Foru legeak berezkuratzeko be, adierazi eban.

1.904ko urtean Urtarrillaren 10ean Bilbon, "Juventud Vasca"ko elkarteak sortzen da.

1.904ko urtean Otsaillaren 14an, "Juventud Vasca"ren bizi edo jolas tokiak zabal-tzen dira.

1.904ko urtean Jorraillaren 3an, eta espainitar gobernuaren aurkaritz gogor bate-gaz, zabaldu zan Donostin "Euskal Bilgunea"⁽¹⁾.

1.904ko urtean Bagilaren 12an E.A.J.ko arduradunak, La Patria astekarian ataraten dabe antolamenduzko idaz lan bat, 10 kidezik gora daukiezan udalak, udalaren ordezkari bat aukeratu egien.

1.904ko urtean Iraillaren 21ean: Abadiño, Arrieta, Begoña, Bermeo, Bilbao, Deusto, Durango, Elantxobe, Gautegiz Arteaga, Galdakao, Getxo, Gernika-Lumo, Gorliz, Lekeitio, Muxika, Mundaka, Mungia, Otxandio, Sopena, ta Balmasedako "Juventud Vasca"ren bizi edo jolas toki guztietarako, ta Udal edo, erri guzti orren ordezkarien artean, Larrauri'ko Alipio aukeratzeko dabe, Bizkaiko Lurraldearen ordezkari nagusi lez.

1.904ko urtean Urrillaren 9an, Donostiko Euskal Bilgunean, Arrasate, Bergara, Deba, Errenteria, eta Donostiaren Udaleko ordezkariak batuta, Aranzadi'tar Engrazio aukeratu eban Gipuzkoako Lurraldearen arduradun nagusi lez.

1.904ko urtean Azillaren 5ean, eta urte onetan E.A.J.ko erakundean amaitu ziralako egin ebazan antolakuntzak, La Patria astekarian argitzen dabe, zelan Pertika'tar

(1) Euskal Bilgunea = centro vasco de San Sebastián.

Felix aukeratu zan arduradun nagusi lez, sortu zan “Euskal Abertaletasunaren Orokorrezko Agiritegi ta Liburutegien Estapen edo Iraspenerako”⁽¹⁾.

1.905eko urtean Jorraillaren 29an, La Patria astekarian argitaratzen dabe, zelan ortik aurrera, Sabinok Euskalerrirako idatzi eban “Eusko-Abendaren Ereserkia” izango dala Euskal-Aberriareneresi edo ereserkia⁽²⁾.

1.905eko urtearen Abenduan, eta itzaldi bat emon zalako Andres Deunaren egunean, espainitar gobernukoak, Bilbaoko “Juventud Vasca” alkarteko egoitzaren itxidura agindu eban.

2. 5. XIII In Alfonso ostera berrezkuratuz.

1.906ko urtean eta Jorraillako illean igon eben Battenberg´tar Bitoria Eugenia⁽³⁾ nes-kato au erregeen maillara, XIII In Alfonso´ren ezkontza, morganatikoa⁽⁴⁾ ez dagian izan.

1.906ko urtean Loraillaren 7an siñatu ziran ezkontza onen baldintzak.

Eta 1.906ko urtean Loraillaren 31n ezkondu ziran XIII In Alfonso, eta Battenberg´tar Bitoria Eugenia, Ingalaterrako Battenberj´eko Enrike printzea ta Beatriz printzearen alabea, ta Ingalaterrako VII In Enrike´en alabaso edo bir-alaba zanagaz.

Egun onetan eta ezkontza ostean, Erregeen Jauregui etxera joan ziranean ezkondu bari oneik, eta Madrilleko kale nagusititik 88 zenbakiaren aurrean egon zirala, lege-bageko⁽⁵⁾ Morral´tar Mateo´k, lora-sorta baten barruan, leergaillu bat eukela jaurti cutsoen, Alfonso ta bere emazte Bitoria Eujeniak, zauri barik urten da, naita bere inguruan 28 il eta 100 zaurituak, bai ta erregeen zaindari artean 3 agintari nausi ta 5 gudari il eta 14 ikusle zauritu.

XX gizaldiaren leenengo amarkada bietan, erritarren matxintasun ugari bizi eban espainitarren erriak.

1.909ko urtean, Bartzelonan egin zan aipatuena, “ikaragarritzko astea” lez, esagutuko zana.

Eta, erritarrak asarre bizian egon ziralako Marrokos´eko gudagaz sortzen zanakin, urte orretan, Marrokoseko guda gogortu zalako, larritasun gogorrek sortu ziran Erdiugarte onetan, arazo audienetariko baten biurtu ondore.

1.911ko urtean joan zan XIII In Alfonso Melillara, eta ikuste ori egin ostean, senat batzaren lendakaria zan Montero ta Rios´tar Eujeniok, “el Africano”ren izena ipiñi uteson.

1.914ko urtean eta Munduko Leenengo guda sortu zanean, naita erregeak gobernuko kideai eskatu, euren eritziak iñoren alde kokatu ez zitezen, XIII In Alfonso´ren etxea, zati bitan bananduta geratu zan, bere ama Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristina Austriar lez, erdiko lez ibili ziran aberrien alde egon zalako, eta bere emazte Battenberj´tar Bitoria Eugenia Ingelesa lez, alkartasunezko aberrien aldekoa zalako.

1.917ko urtean sortu zan guda onen arrazoia, Alemaniaren urpeko itsas ontziak aldarrikatu ebenean, urpeko guda egingo ebal mugaketa barik, espainitarren itsas ontziak urperatzeko ezeren begiratze barik.

(1) Euskal Abertaletasunaren orokorrezko agiritegi ta liburutegien Estapen edo Iraspenerako = creación de un artxibo-librería para el nacionalismo vasco en general. (2) Ereserkia edo eresía = Himno nacional de Euskadi. (3) Ingalaterrako Battenberg´tar Bitoria Eujeniarekin = Ingalaterrako Battenberj´tar Enrike printzea eta Beatriz printzearen alaba izan zana. 1.887ko urtean jaioa, eta 1.969ko urtean il. (4) Morganatikoa = matrimonios que se realizaban entre conyuges de distinta clase social, por eso le elevaron a Victoria Eugenia de Battenberg a la categoría de alteza serenísima. (5) Lege bageko = anarquista, ácrata.



XIII In Alfonsok bakezta ebena, bera “menpetasunezko bulegoen alde” lan egiten egoala, gudaren Alderdi biko arduradunakaz, lortu ebalako “arrotzale edo arrotz maite”aren ikurriñakaz ibiltzen ziran itsas ontziak⁽¹⁾, begirunez artu egien.

1.921eko urtean, eta txarto edo suster-bako aukerean egin ziran gudaren egitasmuzko antola batzuen erruz, “Annual’eko Ondamena” deitu jakonai agertu zan, Melillako gudan, bulegoaren ondamena sortu zalako.

Espainitar erritarrak asarre agertu ziran, 1.917ko urtearen orokorrezko grebatik etorten zan gero ta geiagoko gaitzezte gogorrezko marmarrearen aurka, politikaren orokorrezko berrikuntzak be, zalantza orren azpian ipiñita.

“Pikassoren Irixpideak edo Irtenbideakaz” deitu zanakin, asi eben sortutako gauzaren billaketa edo artezkuntzan, goi maillako jaurkintzaren ainbat arduradun arrapatuta geratuz, nai ta agiri ori, sekula argirik ikusi ez.

Erritarrak ta goi maillako arduradun batzuk, erregeari leporatu eutsoen “Annual”eko zorigaitzezko ekintza, ondameneko errudun ziran Berenger´tar Damaso ta Silbestre´tar Fernandez Jenerala, beren lagunak izanez gaiñ, berak ipiñita eukazalako.

Erritarren asarrea gorantza joan zan, XIII In Alfonso Frantziaren ego aldean oporetan egoala, eta porrotaren ezagutza emon eutsoenean: “merkea zala ollaskoaren oklea” esan eban, espainitar gudarien etorkizunari, ezeren aipamen egin barik.

Orregaz batera erregeak, Silbestre´tar Jenerala alegindu eban, Rifeko lurraldetatik sartu, eta al ebezan geienezko lurrak artu zediñ. Onek baiña, edozein lekuetatik edo Melillatik kanpo egin ebazan okerrezko eginkutzakaz, gudaloztearen bizigarriak eta atze aldia babes barik itzi ondoren, dan guztia ondatu eban.

1.923ko urtean, XIII In Alfonsok egoera larri orren aurrean, oldoztu eban, ia ez bazan obe izan, nausitxargo edo nausitxar aldi bateko jaurkintz bat ipintea.

Eta 1.923ko urtearen Dagonillan XIII In Alfonso, Maura ministruarengana joan zan, berak, jaurkintza orren gora beran, eritzi bat emon eutsoen. Maura´ministruaren erantzuna, gauzak egon ziran eran obeto zala gudalezko nausitxargo baten jaurkintza ipintea, izan zan.

-Bestea: Milan ta Leongo Kiñonestar Juana Alfonsa (Lenengo abizena ume ordearena izanda, bere aita Milan´eko dukea zalako), eta bigarrena, Frantzian egon zan espainitar ordezkogaitik.

1.916 ta 2.005eko urte artean bizi zan Noon´tar Beatriz Irlandako nanny au. Ingalaterrako Beatriz izan zan bere amagiñerraba, printzeak Erdiugarte ontara ekarriko.

Karly Simon´ek: nor-bere bizitzaren langintzazko abeslaritzaren autobiografia edo agerpenetan esaten dau: beren amaren aldetik euki eban amama Txibie, XIIIIn Alfonsoren sasiko alaba zala, ustez. Bere bizitzaren azkuntzazko edestia, Ingalaterrako lekaima etxe baten eginda.

10. *Torres eta Alkala-Zamora´tar Nizeto´ren bizitza.*

1.877ko urtean Uztaillaren 6an, Kordobako lurraldearen Priego´ko erritxoan jaio zan, Alkala-Zamora ta Torres´tar Nizeto au, eta 1.949ko urtean Otsaillaren 18an Argentinaren Buenos Aireseko Urian il.

Espainitar Politikua eta lege-jakintzaren zuzentasunezko bidetik bizi zana, XIIIIn Alfonso eregearen gobernuetan, ainbat ministeritzazko arduraduna be, eta IIIn Errepublikan bitarteko edo aldirako lendakaritzaren agintaritzza eroan ostean, 1.931-1.936ko urte bitartean, IIIn Errepublikako lendakaritzza zuzendu ebena.

Karakuel ta Alkala-Zamota´tar Manuel, eta Gaztelu ta Torres´tar Franzizkaren semea zan, euki zituzen beste alaba seme Manuel eta Pilar, anai arrebarekin.

Eta bai ta erdiugarte onen, Kordobako lurraldean Priegoko errian jaio ziran Garzia ta Alkala-Zamora´tar Gregorio, ta Serrano ta Karakuel´tar Maria de Santa Engrazia´ren billoba izan zan, ta oneik euki zituzen 11 seme alabaren loba, alde batetik. Bestetik: Jaen´eko lurraldearen Alkaudeteko errian jaio ziran Torres´tar Juan Manuel eta bere emazte, Gaztelu´tar Maria del Rosario´ren billoba.



1.900eko urtean, bera baiño iru urte gazteago izan zan, Bidaburu ta Gaztelu´tar Garbikunde edo Purifikazionegaz ezkondu zan, zazpi ume eukin da.

1.881-1.894ko urte bitartean diputadu ta senatore zan Karakuel ta Alkala-Zamora´tar Gregorioren loba izan zan.

Granadako Ikastetxe Nagusian dauka oroimenezko burni-xafla bat, bere abizen ta izenakaz gogoratzen, zelan aldatu zan Ikastetxe Nagusi orretatik, bere goi maillako ikasketak egiten.

1.887-1.891ko urte bitartean, batxillerra´ren ikasketak bete zituzen Kabra Errege´ko ikastetxean. 17 urtegaz, lizentzi-mailla lortu eban lege-jakintzazko eskubidearen arloetan, Granadako Ikastetxe Nagusian, eta 22 urte euki zituzenean, Laterriaren Aolkularitzazko batzarraren Idazkaritza. 40 urte euki zituenerako, ospe aundiko gizona eginda egoan, eta Prieto ta Garzia´tar Manuel, Aluzemako Markesaren gobernuan, Laguntasunezko Ministeritzaren arloko ordezkaritza, eroan eban.

Berak, beti aldarrikatu edo esan eban, erregetzazko liberalaren aldekoa zala, gattetatik liberalaren alderdian lerrokatuta, Moret´tar Segismundo ta Praxedestar Mateo Sagaztagaz batera, bideratzen eben alderdia.

1.917ko urtean kontuan artuta baiña, espainitar lurraldeetan denbora aietan, arazo aundiak euki ebazala, janarien ugaritasunezko mozkiña lortzen, eta Munduaren I. borroka nagusiaren bidez, ertsitu edo sarratu egiten zirala janari bideak, gobernu ura ez ebala luzero iraungo, eta urte bat bete orduko, amaitu jakon euki eban agintaritza.

XIII In Alfonsoren konstituziozko asken gobernuan be egon zan, gudako ministeritzaren zorroagaz.

Alkala-Zamora´tar Nizetok, ainbat lan-postu ezberdin ibili ebazan, gobernu ezberdiñeko ministeritzatik, eta 1.905eko urtean La Karolina´ren taldeko diputadua egin eben ordutik aurrera, mintzalari edo izlari aundi bezela be, agertuko zan.

Denbora luzean, Romanones kondearen liberal alderdian egonda, gobernuaren idazkaritzazko arduradun ordezkioa be, izan zan.

Eta Kanalejas´tar Josek, Erdiugarte onen lurraldeentzat, edestiko erri ezberdiñakin⁽¹⁾ eta lurralde ezberdiñakaz egon ziran erri-batzarren⁽²⁾ arazoak konpontzeko, aurkeztu eban egitamuzko batzarretan be egon zan. Asken baten Garzia ta Prieto´tar Manuel´en Liberal Alderdi Demokratikoan lerrokatzeko. Ortik aurrera Laguntasunezko ta gudako zorroakaz⁽³⁾ lan egiteko.

1.923ko urtean Lorailaren 23an, espainitarren orokorrezko batzarrak batu ziran, batzarraren biribil edo obo-erdia, 22 alderdi ezberdiñakin osotuta egoan: Demokratak; Liberalak; Ezkertiarak; Lurra lantzen eben Liberalak; Eraberri-Zaleak⁽⁴⁾; Nizeto´en Aldekoak; Gordetzailleak; Zierbistak; Mauristak; Erki-Zale edo Erri-aldeko Zaleak⁽⁵⁾; Errepublikaren aldekoak; Sozialismu edo Gizartekeriaren aldekoak⁽⁶⁾; Erregeen aldeko Batu zaleak⁽⁷⁾; Errege Zaleak; Euskaldun Abertzaleak; Katalan Abertzaleak; Bizkaiko Erregearen Alkartasunezko alderditarrak; Karlisten lengo zale edo

(1) Edestiko erri ezberdiñakin = distintas naciones históricamente que comprende la península, con el sempiterno problema de la L.T.H. (2) Erri Batzarraren arazoak = y los problemas de las comunidades. (3) Laguntasunezko ta gudako zorroakaz = para trabajar en adelante con las carteras ministeriales de fomento y guerra. (4) Eraberri-Zaleak = reformistas. (5) Erki-Zale edo Erriaren-Aldeko Zaleak = regionalistas. (6) Sozialismu edo Gizartekeriaren aldekoak = socialistas. (7) Erregeen aldeko Batu Zaleak = Unionistas monárquicos.

Antziñ-zaletasunezkoak; Katolikoak; Saleroslearen ezberdiñ motakuak; Nekazariak; Osotasunezko zaleak⁽¹⁾; eta abar. Iñork, ezin ebena zuzendu.

1.923ko urtearen Iraillan Ribera ta Primo´tar Migelek, espainitar Laterriaren aurka matxinatuta, lege edo aginduak zuzentasunean ikertzeko, gudararien batzar bat⁽²⁾ sortu eban.

Erritar asko poztu ziran Migelek artu eban erabagiagaz, Alkala-Zamorak baiña, bere politikazko eritzia aldatzen joanda, Ribera ta Primo´tar Migelek irasi eban jaurpidearen guztiz aurkakoa agertu eban, eta bai ta XIIIIn Alfonso erregearena be, kaisar aginte ori ipinteko, baietza edo laguntza aundia emon eutsolako.

1.930eko urtean Jorrailaren 13an, guzur eta zalantzak, aberatsak zirala espainitar gobernu orreitan, Ribera ta Primo´tar Migelek, bere lanpostuari itzi eutsoenerako, XIIIIn Alfonsok, 1.876ko urtearen konstituzioa ipiñi bear zala ibiltearen aginduagaz, Berenger´tar Damaso guda nagusia ipiñi eban gobernuaren lendakari.

Alkala-Zamoratar Nizetok, Balentziako Apolo agertoki edo antzokian, bere solasaldi edo itzaldi ospatsuena emonda, erregetzari bere baietza ta laguntza guztiak kendu eutson, eta Frantzesak euki eben irugarren errepublikako antzeko bat ipinteko ibili zan, erdiko giza-mail, eta jakintsuak⁽³⁾ euken indarragaz bideratu egien.

2. 11. *Batikanoa.*

Batikano, mendiari edo Batikano´ko Jauregiari dagokiona esaten jako, eta batikanista, Batikanok eroaten dauan politikaren zale, edo Batikanok eroaten dauan politikaren aldekoa danari. Eta Europan dagozan sei Laterri txikien artean, dagoen Laterri aberkide⁽⁴⁾ bat, eta txikerrena, bera da.

Batikano, Erromaren lurraldean kokatuta dago, beren 0´44km² edo 44 ektarearekin, eta gitzi gora beragoko 800 bistanlegaz.

Eta maltzurrez ta menpetasunezko guzurrean eginda dagoan, barregarritzko, edo Urrezko Txekorra gurtzeko dan Batikanoaren Laterri Katoliko Aberkide otoiz toki onek, edo berezitasunaren aurka eginda dagoan gauza onek, Itsasoa ikusibageko 4 km´ko luzeran daukaz, bere mugak.

Tiber ibaiaren eskuma aldean, Trastebere auzunean, Batikanoko mendizka eta bere inguru gaiñean kokatuta dago. Eta Batikanoko mendi ta etxearen kanpo, Erromako 13 etxe jauregi, bere jauntzapean kokatuta dagoz, daukazan irabazbidetan, besteen menpe kanpotik edo mugapekoan⁽⁵⁾ bizi dirala.

Euren artean: Letraneko San Juan, erritik kanpo⁽⁶⁾ dauan San Pablo, Aundieneko Andre dena Maria´ren⁽⁷⁾ eleiz nagusia, Gregoriana`ren Ikastetxe nagusia, Barberini´ko eguras-etxea, eta udarako dan Gandolfoko Jauretzea⁽⁸⁾.

(1) Osotasunezko Zaleak eta Askatasunezkoak = integristas e independientes. (2) Lege edo aginduak Zuzentasunean arteztzeko, gudararien batzar bat sortu eban = que para gobernar creó un directorio Militar. (3) Erdiko giza-mail ta Jakintsuak bideratu egien = para que los dirijiesen los intelectos y gentes de la clase media. (4) Laterri Aberkide = estado nación. (5) Besteen menpe kanpotik edo mugapekoan bizi dirala = que gozan de extraterritorialidad, convertida por no sé qué inventos privilegiados en estado-nación. Esto ez, como si el estado, que quiere decir "sujeto a cambios" fueran el padre y la madre de todo ese invento. ¿ Donde está la Naturalización legal del Derecho, impresa por El Creador a ésta Naturalización ?. (6) Extramuros = San Pablo Extramuros. (7) Aundienetako Andre dena Maria = Santa Maria la Mayor. (8) Gandolfoko Jauretzea = el palacio de verano de Castel Gandolfo para el veraneo del papa.

Eta Batikano´ren barruan, San Pedro eleiz nagusia; Sixtina-Otoiz tokia; Batikanoko Liburutegia; erakus-toki batzuk, euren artean xixel edo tailugintzaren erakus-tokia⁽¹⁾; Margo-Erakus tokia⁽²⁾; Gaurko Eder-Lanentzako erakus tokia⁽³⁾; Jendekuntzarako toki batzuk; eta 1.970ko urtean Pier Lujji Nerbi k, VIIn Paulo´rentzat egin eban entzuteko gela aundia⁽⁴⁾.

San Pedro´ren Eleiz Nagusien asiera, San Anakleto Aita Santuak, San Pedro´ren illobi gainean otoiz-toki bat egitea agindu ebanean asten da.

I Konstantino, Erromatarren Eki aldeko, eta Ego aldeko Kaisar nagusiak, eleiz nagusi bat egitea agindu eban, K.o. 324ko urtean amaitu zana. Eta ortik 12 gizaldi barru, erre ta ezereztu egin zana.

Vn Nicolás Aita santuak, beste Eleiz Nagusi bat agindu eban egitea, 1.626ko urtean amaitu zana, eta VIIIIn Urbanok sagaratu⁽⁵⁾ egin ebena. 187ko metro daukaz luzetara eta 1357 15metro zabalean, goialdean 137´50m. daukaz, ta goil-erdiak 42´45m. begiz-begi⁽⁶⁾.

Bramante eraikille edo etxegilleak antolatu eban argintza onen egitaraua⁽⁷⁾, eta IIIn Julio Aita Santuak baieztu.

Sanzio edo Urbino´tar Rafael⁽⁸⁾ izan zan urrengo egilea, bere Giokondo ta Sangaloko Giuliano´tar Fray ikasle edo etxegillezko lagunekin. Gero Peruzzi´tar Baldassare Sangallo´tar Antonio, eta 1.547ko urtean Migel Anjel, goil-erdia pizkundeko itxuran egin ebena⁽⁹⁾.

100urte beranduago Maderno´tar Karlok emon eutson Erromako eleiz nagusi orreri latinezko gurutz antzekoa.

Sixtina´ko otoiz-tokia, luzeran 40m, zabaleran 15m, eta 18m goi aldian daukanak, IVIn Sixtok, edo Bazio Pintelerik aginduta egin zan.

1.512ko urtean Azillaren 1ean, IIIn Julio aita Santuak, zabal-aldi aundiagoa emon eutson, eleizaren-sapaia⁽¹⁰⁾, iztuku berrian margoztu egiazan Testamendu zaarrezko ta Asken-Epaitetazko irudiak Migel Anjeleri aginduta, eta IIIIn Paulok eskatuta, altararen ormak iztuku margoan, 6 urteko apean amaituta, 1.541eko urtean Abenduaren 25ean zabaldu zana.

Batikanoko Uriak, esar lekua dauko bere barruan, eleiz katolikuen egoitza lez, eta izen bi orreik batzuk edo jende guztiak, bardiñak diralakoan erabilten ba dabe, lenengo Uri ta lurraldeari dagokion lez aipatu bear da, besteak, eleizak bideratzen dauan eraikitze edo erlijio katolikuen eraspina lez ibili bear diralako, beragan daukolako beren epaitetazko nortasuna, erriarteko eskubide lez.

Batikanoaren politikazko antolakuntza, goitik berako aginduan eginda dago, erregearen orokorrezko al-osokerian ta kaisertzazko eran, Aita Santua, goiko agintaritzan ezarrita.

Europar, erregeen azkeneko al-osokeritasuna ta Jaungoikuaren-Aginte lez⁽¹¹⁾, geratzen dan kaisar-agintari bakarra izan da.

(1) Tailigintzaren Erakus tokia = Museo de la escultura. (2) Margoen-Erakus tokia = pinacoteca o museo de pintura. (3) Gaurko Eder-Lanentzako erakus-tokia = Galeria de arte moderno. (4) Eta Lujji Nerbi k, VIIn Paulorentzatt egin eban entzuteko gela aundia = La sala de audiencias que Luigi Nervi hizo para Pablo VI en 1.970. (5) VIIIIn Urbanok sagaratu ebena = que lo consagró Urbano VIII. (6) Begiz-begi = diametralmente. (7) Bramante etxegilleak antolatu eban argintza onen egitaraua = que fué Bramante el arquitecto quien proyectó la construcción de éste edificio. (8) 1.483ko urtean Sanzio edo Urbino´tar Rafael etxegille ta margolari aundia = Italiako Urbino´n, edo Italiako Pésaro lurraldean Urbinoko Urian jaioa eta 1.520ko urtean Erroman il. (9) Batikano´ren Goil-erdia, pizkundeko itxuran egin ebena = que hizo la cúpula del Vaticano al estilo renacentista. (10) Eleizaren-sapaia iztuku berrian margoztu egian = mandando después a Migel Anjel, que pintara la bóveda al fresco. (11) Jaungoikuaren Aginte lez, eta erregeen azkeneko al-osokerizko agintaritzaz geratzen dana = que en Europa son la última Teocracia, y absolutismos reales que como heredad del medioevo quedan.

2. 12. *Batikano´ko, edo Aita Santuen edestia.*

Kristo il zan urtetik, edo kristautasunezko alditan sartu gintzazan utsezko asiematik, San Pedro il zaneraíño, onek 67 urte bete ebazanakaz. Aita Santuen edestian sartuta, guri arduratzen jakuna, 325eko urterarte I San Silbestreen denboraraíño, 35 Aita Santu aldatu zirala, eta 756ko urtean, eleizaren jakineko edestian II In Estebanegaz asi orduko, beste 67 Aita Santu aldatu zirala.

2. 13. *Oar txiki bat emen.*

Gauza baten bat orregaitik, oker dago emen, ondo dakigulako, Arrianoren denborea 325eko urtean amaitu bazan, eta 325eko urtean I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak, Kordobako Osorio gotzaiña, ta Bito ta Bizente abadearekin Nizeako eleiz batzar nagusian, zelan Mundu osorako sortu ta siñezkatu eben, guri Jaungoikuak egindako gauza lez beti esanda: “iru sasijainkoen katolikotasunezko aberkidetza, Zezareako Eusebioki antolatu eban siñizbideko kredoagaz ikur lez, Munduko gizaki guztiak erabili egien”.

381eko urtearen baiño ariñaño, eta Damaso Aita Santuaren denboran, Konstantinoplako leen eleiz batzarra egin zanean, eleiz barnean ebatuta egon ziran ziñauskeriak kentzeko, Nizean, “Ispiritu Santuaren jainkotasuna” ziñezkintzatu ta baieztu bazan, emen, kendu gura eutsoen. Ez ebelako onartzen, uso-ar orrek, jainkotasunezko egazkerietan ibili zedin.

431ko urtean Efesoko eleiz batzarrean, Zelestino Aita Santuaren denboran, Nestorio gaitz-etsi gura eben, onek ez ebalako onartu gura Kristoren Jaungoikotasuna. Orren ostean Kristoren ama Jaungoikuaren ama lez izendatu eben.

451ko urtean Erromatar Marziano kaiserrak, I Leon Aita Santuagaz, Kaledoniako eleiz batzarrera deituz, bertan Nestorio ta Eutikeseri, birao *ko*⁽¹⁾ madarikatasuna ipiñi gurean, edo eleizatik eskomunikatzeko agintea baieztu eben, Kristoren jainkotasuna ta gizatazunak, jainkotasun bitan baieztu egin ebazalako, Alejandriako Dioskoro´ren monofisismoen⁽²⁾ aurka.

Eta emen ikusten da argi ta garbi, eleiz katolikua ez dagola eginda Goiko Jainkoagaitik, Urak, ez dauelako Bere Arauditasuna, izkilluaren indarragaz ezartzen, Igo Konstatino ta Igo Silvestre Aita Santua, Osorio gotzaiña ta Bito ta Bizentek, eskomunikazioak egin eben antzera.

553ko urtean, Justiniano eta Bijilio Aita Santuak deituta, Konstantinoplan egin zan bigarren eleiz batzarrean, Greziako Orijenes´ek bere lanetan, Aita Santu eritzien ustez egin ebazan akatzak, ta nestorianoren iru txatalak zigortu edo gaitz-etsitzeko, batu zan.

680-681eko urtetan IVn Konstantinok deituta, Konstantinoplan egingo zan irugarren eleiz batzarra, San Agaton ta II In Leon Aita Santuak, mai ori bideratuz, monotelitasek⁽³⁾ edo Jesusen borondatean, jainkotasunezko borondate bat bakarrik egoala oldozten ebenak, gaitz-etsitzeko⁽⁴⁾.

(1) Birao = voto, juramento, maldición, imprecación, anatema, etc. (2) Monofisismoa edo gauza bien izateagaz, bat izatea = que en la enseñanza dogmática del catolicismo, no existen en Cristo dos personas diferentes divina y humana, sino humana y divina a la vez. (3) Monotelitas o corrientes doctrinales que no admitían en Cristo más que una única voluntad divina. (4) Gaitz-etsitzeko = para condenar.

Batzar asko egon dira eleiz katolikuaren bizitzan, baiña aaztu gure dabela esan leike, katolikotasunaren aberkidetza bidez, sortu edo ezarri ziran astokerizko ziñezkintza guzti orreik, leenengo urte orreitan.

2. 14. *Aita Santuen edestiari ostera ebatuz.*

756ko urtean eta IIIn Estebanegaz asten gara, Aita Santuari dagokion edesti onegaz.

1.798, frantzezaren gudalozteak, VIIn Pio Aita Santua baitu edo atxilopetu egiten dabe.

1.846ko urtean Bagillaren 16an, IXn Pio Aita Santua aukeratzen dabe Erromako Aita Santu lez.

1.848ko urtean Azillaren 24an, IXn Pio Aita Santuak, Italiako aberkidesunaren aurka egoteagaitik, abade mozorruta, alde egin bear izan eban Batikanotik, Italiako aberkideak, bere atzetik euki ebazalako atrapau gurean.

1.850eko urtean Jorrraillaren 12rarte ez zan IXn Pio Aita Santua, bere atzerritasunetik ostera agertuko, Erromako Batikanon, Aita Santuen eseri lekuan ezartzeko. Oraindiño be, Erdiugarte orreitan bizi ziranak, Italiaren lurraldeari aberritasunezko batzangotasun bat emoteko ametsean, edo, nortasunaren aberkidetza barri baten itxuran emongo eutsoen itxaropenagaz egon zirenaren, amorratzuko etsai aundi bat biurtuz egoalako.

1.854ko urtean Abenduaren 8an, Jesus´en amagaitik aldarrikatu eben: “sortzezko pekatu barik jaio zala”, eta orregaitik errubagea zala, edo ta sortzez garbia zala, Jaungoikuaren ama izendatuz. Bai ta bide batez, Aita Santuaren “uts-ezintasuna”⁽¹⁾.

1.859ko urtea, urrengo urteagaz, oso garrantzi aundiko urteak izango ziran Italiako aberkideentzat, Frantzezaren laguntzagaz, Austriari aurkezten dautisolako guda, Milan´eko Uria menpean artuta, Toskanako dukerriaz batera.

1.860ko urtean Garibaldi ta bere gudariak euren arkondara gorriekin, Bi-Siziliako Borboien erregetza menperatu eben, Piamontesak, joan zan urtean gud-antzeko bat eginda.

Eta Garibaldi, apaizaren aurkako amorratu lez, Aita Santua atara gura eban Erromatik, bere esan ospatsuagaz: “Erroma a la IL”.

IIIn Biktor Manuel´ek alderantziz, eta Garibaldi geratzeko aitzakiagaz, bere gudalozteak, Aita Santuaren lurraldeetara bialdu ebazan.

1.860ko urtean IIIn Biktor Manuel Italiako erregeak, Aita Santuen Laterriak artzen dauz menpean, eta Erromako etxea ta itsas ingurua bakarrik itzi eutson IXn Pio Aita Santuari.

1.860ko urtean Bagillaren 20an IXn Pio Aita Santuak, bere amurru guztiagaz eskomunikatu edo eleizatik kanporatu eban IIIn Biktor Manuel, gero “Qui nuper” eskutitz⁽²⁾ gogorra agertuz, Italiako gobernu barriaren aldekoentzak bideratuta egoana.

1.861eko urtean Epaillaren 17an, IIIn Biktor Manuel egin eben Italiako errege.

1.866ko urtean IIIn Biktor Manuel´ek, Beneziagaz jabetu zan.

1.866ko urtean Italiako gobernu barriak uste dau, ordua zala Italiako lurraldeak batzeko aberkidesunenezko nortasunaren jaurpide bategaz zuzentzeko, eta Aita Santuari eskeiñi eutson, Batikanokoagaz batera, Sant´Anjelo, ta Tiber ibai inguruan agindu egiala bakarrik, erregearen al-osotasunezko eran.

(1) Uts-ezintasuna = infalibilidad del Papa. (2) Eskutitz gogorra agertuz = encíclica.

IXn Pio Aita Santuak, oso aserre baztertu eban eskeintza ori, bere ustez, aldiko almena⁽¹⁾, bearrezkoa zalako, arimaren almenak arazo barik bideratu edo zuzeneko bidetan ezartzeko.

1.870eko urtean Azaroko 20an Italiako errege IIn Biktor Manuelek, Franko-Prusianoren gudan, garaipena lortuz, eta Frantzezaren gudalozteak Erromatik alde egin ebenean, Erroma artzen dau, Italiako erreñuaren Uri nagusi barri lez izendatuz, IXn Pio Aita Santuaren ezetz aundienagaz, gobernu barri orren kideak, Aita Santuaren jabetzazkoa zan Kirinaleko jauretzea gura ebelako, Italiaren lendakarizko egoitza lez.

Emen batu ziran leen aldiz Italiako lurak erri bat bezela.

K.a. 753ko urtetik Italian egon ziran Etruskoen bidetik, gudalozteak antolatuz euren saleros tokiak babesteko, eta gero gudalozte orreik, Etrusko-eurak menperatu ondoren Erromatar kaisertzazko gudalozteen menpean eukiteko, agertu jakien Godoakaz, Italiako lurraldeak beste kaisertzazko eritzi barri baten itxuran, edo nortasunezko naasketa baten biurtu zan, Europako erregeentzat, bakotzaren jabetasunezko⁽²⁾ bitxi bat izan zan arte biurtu ebena, bat edo besteen garaipeneko jabetzaren agindupean bizi egiezan. Erromatarrezko kaisar eritzien gudalozte orreik, Erdiugarte orren lurraldeetan bizi ziran errigizartearen nortasunak, ezereztu edo zirriborroto egin ebazalako.

Dana dala, argi dago, Aita Santuak ez ebalu onartzen, bera baiño gorago edo beren gaiñetik eukitea aldiko almenik, katolikotasunaren aberkidezko erlijio bidetik, almen zuzena eukelako, edo bere ustez, Jaungoikuak emonagaitik eukelako.

Aita Santuak, IXn Pio ´tik asita, ezin eben ulertu Italiako Erdiugarte ori erri bat lez, euren ziñeskintzatuaren katolikotasunezko aberkidetzagaz naikoa euki ebalako.

Orregaitik ez eben Italiako lurralde ori sekula be, erregezko, edo Laterri⁽³⁾ lez onartu, berton lenengotik egon ziran erri-leiñuakaz, IIn Biktor Manuelen atxilotu lez geratuta, Aita Santuaren izango zan Erromako Laterria, Italiako Laterriaren barruan geratzen zalako, eta Italiar orreik, Italia ta Erromako lurralde orreik, euren Aberri ta Uri nagusi lez gure ebazalako, ez Batikanoko Laterri lez.

1.870eko urtean dana dala, IXn Pio Aita Santuak, ez eban gura Batikanoko giltzak IIn Biktor Manueleri emon, eta Italiako gobernuak baikuntzazko lege bat atarata⁽⁴⁾, IXn Pio Aita Santuaren agintaritzaz, errege baten agintaritzaz lez geratzen zan, nai ta Batikanoko Laterria, Italiaren menpeko Laterri lez geratu⁽⁵⁾. Arik eta 1.929ko urtean Mussolinigaz, Batikanoko lurralde ori, askatasunezko Laterri bat lez geratu zan arte.

1.878ko urtean il zan IXn Pio Aita Santua Erroman, atxiloen damu edo sendime-nagaz.

1.917ko urtean XVn Benediktok, Munduko guda Nagusia urtenda egoantzat, bakezko egitamu bat aurkeztu eban, eta Europaren erri arteko guztitik, iñork, ez eutson jaramonik egin.

IXn Pio Aita Santuaren bizia Aita Santu lez, luzeena izan zan katolikotasunezko eleiz onetan, 1.846ko urtetik, 1.878ko urterarte iraun ebalako.

(1) Aldiko almena = poder temporal. (2) Europako erregeen jabetasunezkoa = Italia estaba dividida en multiples trozos, teniendo como propietarios, a todos los reyes de Europa. (3) Laterri = estado nación. (4) Baikuntzaren lege bat = que publicó una "Ley de Garantías". (5) Batikanoko Laterria, Italiako Laterri lez geratu = Que el estado nación Vaticano quedaba sin ningun poder, inmerso en el estado nación Italiano.

1.929ko urtean Otsaillako 11n, XI In Pio Aita Santuen denboran, Letraneko ongundearen izketak edo elkarpedeak ospatu ziran, 1.870eko urtean franko-prusianoko gudan, Italiako errege II n Biktor Manuel ´ek Erromako lurraldeari kendu eutsoezan lur bidez, sortu zan eskubideko eztabaidari, azkena emon edo bakez amaitu zedin.

Gasparri ´tar Pietrok Batikanoaren aldetik siñatu eban ongunde ori, eta Italiako erregeen aldetik, Kaisertzazko almenakin leenengo ministrua izendatuta egon zan Mussolini ´tar Benito faziztea, eleizaren lurralde txiker orreri, Laterriko aberkidetza emoteko⁽¹⁾. 44 eun-areako edo lau ektareako Lurralde orren leen Jaurlaria⁽²⁾. Diruen ardurazko arloetan, goitsu edo jakintsua izan zan Kamillo ´tar Serafin zan.

1.937ko urtean, XI n Piok, “*Mit Brennder Sorge*”ko enziklikea edo idazkai luze bat argitaratu eban, gizartekeriaren aberkideztari⁽³⁾ aurre egiteko, (*nik, ez dotena sinisten*), ariñautik Frankok, Erdiugarte onetara, Italia ta Alemaniatic ekarri ebazan izkillu ta guda tresneri guztiak, bereinkatu ebazalako, beren Aberkide-Katoliku Gurutzada sarkratuagaz, irabazi egien. Edestitik zear, Gudalozte indartsuenak eukiten ebazan erregeari, emoten eutsoelako Kaisar Katolikuen domiña aundi ori, Izadi onen giza guztia, katolikotasunaren aberkuntzan batzangotzeko.

Alderantziz: “Gizartekerizko Aberkideztari bideak zabaldu ondoren, Europa guztiko lurraldeak, bai ta Batikanoen lurraldeak be laterrituz gaiñ, aberkide egin ebazan, nortasunaren edozelango izen ta izkuntz baragarri bat emonda”, “Milla urteko azkuntzan lortu ziran Jendekuntzazko⁽⁴⁾ benetako aberkideztak, ezereztu gurean, edo alboratu naian”.

Kosta egingo jakiena, Euskalerrian milla urte askotan, jendekuntz bidetik, Jaungoiko. Irasleari begira eginda dagoelako, bere nortasunaren Askatasunezko sen demokratiko ederra lortu ebena. Eta ori ez da kentzen aiñ errez.

1.939ko urtean il zan XI n Pio Aita Santua, eta bere ordez, XII n Pio ezarri zan San Pedroren aulkian. Eta Munduko II n Guda asi zanean, XII n Pio Aita Santuak Batikanoa, Alderdi edo aldera-bageko lez aldarrikatu ebanean, Batikanoren lurpeko artzuloak atzurkatu ebazan, ia San Pedroren illobia berton egon bazan edo ez, bien bitartean eskumatar faziztakaz jokatuz.

1.958ko urtean il zan XII n Pio Aita Santua, eta bere ordez XXIII n Juan izendatu eban.

1.962ko urtean XXIII n Juanek, Batikanoko II Elei-Batzar nagusia egiteko agindu eban.

1.963ko urtean il zan XXIII n Juan Aita Santua, eta IV n Paulo ipiñi eban bere ordez.

1.965eko urtean VI n Paulok Batikanoko II n Batzar Nagusiak bukatutzat emon ebazan.

(1) Laterrien aberkideztza emoteko = para dar a los estados pontificios, la categoría de ESTADO-NACIÓN. Sabrían estos dos, algo sobre lo que es el derecho de las naciones, o aquien le deba concernir ?. (2) Lurralde orren leen jaurlaria = Diruaren biltzaille aundia zan Camilo Serafin izan zan leenengo jaurlari edo agintaria. (3) Gizartekeriaren aberkideztari aurre egiteko = para hacerle frente a los nacional socialismo. Cosa que estimo incorrecta o falsa, porque para entonces ya habia entrado Franco en ésta península, con su cruzada nacional-católico socialista, cosa que contradice totalmente al Papa Pio XI, que bendijo los armamentos que Franco trajo aquí. Donde tienen una equivocación diametral, puesto que los nacionalismos que se fabrican artificialmente, no son como a los nacidos física y culturalmente se les llama, pues los primeros son fruto de colonialismos esclavizadores caprichosos, que nada tienen que ver, con los “nacimiento-físico-cultural-naturales”, pues son estos los que tienen el derecho inequívoco, a ser considerados COMO NACIONES, en el orden natural de ésta creación naturalizada. (4) Milla urteen azkuntzan lortu ziran Jendekuntzazko aberkideztasunari, bide guztiak moztuta ezeren LOTSÁ-BARIK” = cerrando toda posibilidad ética a todas las verdaderas naciones culturales. Que son las únicas que tienen verdadero derecho a ser NACIONES, porque son los verdaderamente nacidos en ésta Naturalización, naturalizada para el ejercicio moral de la Humanidad por el Dios-Creador.

1.978ko urtea, iru Aita Santuen urtea zana: Dagonillaren 6an VIIn Paulo il; eta bere ordezkari I Paulo ipiñi eben, 33 egun barru il zana, Aita Santu lez 1.978ko urtean Dagonillaren 26'tik, Iraillaren 28ra iriño ordezkatu ebena. Azken baten eta 1.978ko urtean Urrillako 16an Poloniako IIIn Juan Aita Santua aukeratuta.

1.981eko urtean, IIIn Juan Paulo Aita Santuak, XXIIIIn Juan Aita Santuak Batikanoko IIIn eleiz-batzarrean egin eban guztia, ezereztu eban. San Pedroko enparantzan, euki eban txarkeri edo gaztakeritik, gitzigaitik bizirik urten da.

2.001eko urtean Otsaillaren 11n IIIn Juan Paulo Aita Santuak, oiñarrizko legea baieztatu eban Batikanoko Uri edo Laterrientzat.

2.005eko urtean IIIn Juan Paulo Aita Santua ilten da, eta bere ordezkari XVIIn Benedicto Aita Santua ipinten dabe.

2.013ko urtean IIIn Juan Paulo Aita Santuari ordezkatu eutson XVIIn Benedikto Aita Santuak, 2.013ko urtean egin zan Batzar Nagusia ospatu ebenean, uko egin eutson Aita Santu izateari, ta bere ordezkari Bergolio'tar Jorje Mario aukeratu eban Franzizkoren izenagaz.

2.013ko urtean Batikanoko Laterria, San Jose ta Goi Angeruko Migel Sagaratu'ari eskeiñi eutsoen.

2. 15. *IIIn Errepublikaren aldarrikapena eta bein-beiñeko gobernuak*⁽¹⁾.

Leenengo Errepublikeak, bizi laburra euki eban espainitarren artean, 1873ko urte-tik 1.874ko urteraiño iraun ebalako bakarrik, oraindiño, gudako ta eskumatar menpe-tatzail indarrak, aundiagoak izan zirelako.

1.930eko urtean Dagonillaren 17an Montaner ta Maura'tar Antonio⁽²⁾ ta Migelek, euren Eskuma'tar Liberal Alderdi eta Errepublikatar gordetzaillearen izenean, urte ta egun onetan Donostian ospatu zan ongundeko batzarrean egon ziran, erregezko agintaritzak kendu ondore, errerepublikaren eritzizko jaurkintzan ezartzeko.

Ongunde orren erabagi bidez, Errepublikaren eritzizko batzar bat sortu zan, Erdiugarte onen giza, euren espainitar konstituziozko Errepublikaren eritzi barri orrekin bideratzeko.

1.930ko urtean Abenduaren 12an Jaka'ko gudaltegian edo gudari-etxean, Galan, ta Hernandez'tar Garzia kapitaiñak matxinatu ziran, Errepublikaren jaurkintzazko eritzi aldarrikatzeko.

Eskara bideratu ziran matxinatu orreik, ta gobernuaren gudalozteak geratu ebazanean, epaitu ostein, tirok il ebazan.

Madrilleko Lau Aizetako egazkin-zelaian, Frantzizko Franko'rena anaia, Franko'tar Ramon, eta Keipo de Llano'tar Gonzalo matxinatu ziran.

Erregeen jauregia, bombas jo edo bonbakatu gura eban, gudal matxinoak, aldarrikatu zitezzen. Franko'tar Ramonek baiña, Sabatini'ko baratz edo lorategietan, ume batzuk olgetan egon ziralta ta, ez eban bonbarik bota.

Eta naikoa zan bonba orreik ez botatea, beste gudal nagusi matxinatuak geldi egon zitezzen. Eta egazkiñ-zelai ori gobernuaren gudalozteakaz inguratuz geratuta, an egon ziran gudal nagusiak egazkiñez, Portugalera alde egin eban.

(1) Beñ beñeko gobernuak = gobierno de transición, provisional. (2) Maura ta Montaner'tar Antonio = 1.853ko urtean jaio zan Mallorkako Palman, eta 1.925eko urtean Madrilleko lurraldearen Torrelodoneseko Urian il. Espainitar politikua ospatsua izan zana.

A ta guzti, gobernuko indarragaitik inguratuta egon ziran matxinatuak, Errepublikako gidari edo zuzentzaileak, ta batzordeko batzuk, euren artean Alkala-Zamora´tar Nizeto⁽¹⁾ egoala, an geratzen ziranak, arrapau ebazan.

1.931ko urtearen Epailan, Erritarren aurrean egin ziran epaiketazko emaitzak, sei illabete ta egun bateko zigorrakaz urten eban, gero, baldintzapeko askatasunekaz ordaindu ebena.

2. 16. *II In Errepublikako bein-beingo edo bitarteko Jaurbidearen kideak.*

Espainitarren II In Errepublika demokratikoa deitzen jako, XIII In Alfonsok euki eban erregetzazko jaurkintzaren ordez, 1.931ko urtean Jorraillaren 14an sortu ta aldarrikatu zanetik, 1.939ko urtean Jorraillaren 1ean, Frankok ekarri euskun anai arteko guda, edo katolikoan aberkidetzazko gurutzada sakratua asi zanetik, amaitu zaneraíño denborari.

Guda ostean, Frankok ipiñi eban kaisertzazko agintaritzapean bizi bear izanda, ia 40 urtetan.

1.931ko urtearen Otsailan XIII In Alfonso erregeak, Berenguer´ek bere jaurbideari utzi azo egin eutson ostetik, Aznar ta Kabañas´tar Juan Bautistari agindu eutson, jaurkintz barri bat antolatu egiela.

1.931ko urtean Otsailaren 18an, erregetzaren guztiko eritziaren ministruakaz osotuta egon zan gobernu barri bat aurkeztu zan.

Askodun edo askotariko eritziakaz egindako gobernu orrek, berak bakarrik agertu eban, XIII In Alfonso erregeen eziña, zuzenbide bat aurkitzeko, bai ta gaiñera erregeen izaerak euki ebazan arazoak, asko ziran, orekaz konpontzeko.

1.931ko urtearen Jorrail-Abenduko bein-beingo jaurkintzan, eta 1.931ko konstituzioa aldarrikatu zanetik, jaurkitzazko antolaketetan asi ziran, II In Errepublikeari bideak zabalteko, eta orretarako, bakezko 1.931-1.936ko urte bitarteak, iru ekiñalditan ikertzen dabe.

1.931-1.933ko urte bitarteko len ekitaldian, II In Errepublikako bein-beingo edo bitarteko Jaurbidearen kideak: Alborno z´tar Albaro; Alkala-Zamora´tar Nizeto; Maura´tar Migel; Largo Kballero´tar Franzizko; De Los Rios´tar Fernando; ta Lerroux´tar Alejandro izan ziran, espainitarren erriak bear ebazan politikuak, berrikuntza orreik egiteko.

1.933-1.935eko bigarren ekitaldi onetan, urte bi baltzak deitu eutsoezan urte bi onen bitarteai. Errepublikaren ertzeko alderdikoa zan Lerrouxtar Alejandro ipiñi eben gobernuen gidari, Lege-Biltzar bidetik “Espainitar Askatasunezko Eskubitar Alkar-teagaitik” (CEDA) lagunduta⁽²⁾ egoana, lenengo urte bietan sortu ziran akatsak, konpontzeko itxaropenean.

(1) Alkala ta Zamora´tar Nizeto = 1.877ko urtean Kordubako Priego´ko urian jaio zan, eta 1.949ko urtean Buenos Aires´en il. 1.917ko urtean, gobernuaren laguntzaillezko ministrua izan zan (fomento). 1.922ko urtean gudarako leen ministrua. 1.930ko urtean Primo de Riberak euki eban politikaren aurkakoa izan da, Matxinatuko batzarraren lendakaria izan zan, 1.931ko urtean XIII In Alfonsoren erregetza kendu ebena. 1.931ko urtean, bitarteko gobernuaren lendakari izan zan. Eta 1.931ko urte ortako Jorraillaren 14an II In Errepublikaren Lendakari lez izendatu ebena. 1.936ko urtearen Jorraillan kendu eben gobernuo lendakarizatit, eta bere borondatez atzerritu zan, izkuntzaren jakitunen batzarrekoa be izan zan eta abar.

(2) Lege Biltzarretik “Espainitarren Askatasunezko Eskubitar Alkar-teagaitik” lagunduta = Ayudados desde el parlamento por la “Confederación Española de Derechas Autónomas” (CEDA).



Ⓔ

Urte bi onetan sortuko ziran garrantzientariko akats gogorrenak, 1.934ko matxindan esagutuko zan lez, Asturiaseko socialista ta lege-bagekoak⁽¹⁾ sortu ebena, ta erritarren Matxintasun gogorrean biurtuta, gobernukoak, gudalozteen indarragaz bakeztu ebena.

Irugarren azterketako ekitaldi onetan: 1.936ko urtean egin ziran auteskundeak argitzen da, ezker aldearen batasuneko erritarrak⁽²⁾ lortu eben garaipenakaz.

Bost illabetetan bakarrik erria jaurri edo zuzendu ebena, Uztaillaren 17 ta 18ko egunetan Franko 'k, anai arteko guda, (*Euskaldunentzat, atzerritarren guda zana*), edo "sakratuzko gurutzada santu" lez: "Katolikotasunaren Aberkideztazko⁽³⁾ gizartekeria batzangotzeko izenegaz, guda madarikatu ta zitala ekarri euskulako.

2. 17. *IIn Errepublikaren Aldarrikapena.*

1.930eko urtearen Urtarrillan Primo de Ribera 'tar Migelek, uko egin eutsoenean bere jaurkintzari, XIIIIn Alfonsok, bere aukerazko almen guztiak ipiñi ebazan abiadan, bere erregetzaren eritzizko taldeak, len euki eban eragipenezko sendotasuna lortu egien. Nai ta erregetzaren aldeko taldeak oso makal ibili arren.

XIIIIn Alfonsok orretarako, Berenger ta Fuste 'tar Damaso⁽⁴⁾ ipiñi eban gobernua-reen leen ministru lez. Onek baiña, ez eban euki indar geiagorik, espainitarrak lengo konstituzioaren arauetara eroateko.

1.931ko urtearen Otsaillan XIIIIn Alfonsok, Berenger kendu eban "bere makal edo bigunezko jauntzar jaurbide⁽⁵⁾ lekutik", eta Liberal alderdiaren aurretik ibili zan Alba 'ri⁽⁶⁾ eskeiñi eutson gobernu orren lendakaritza. Eta onek ez ebalako artu gura zeregiñ ori, Santzez ta Gerra 'tar Joseri⁽⁷⁾ eskeiñita, au Madrilleko "Jarraibidearen espetxera"⁽⁸⁾ joan zan, berton egon ziran Jakako matxinatuengana, eta euri eskaiñi eutsoezan ministeritzaren zorroak⁽⁹⁾.

Asken baten XIIIIn Alfonso erregeak, Bautista ta Aznar 'tar Juan amiral 'ari eskaiñi eutson espainitarren gobernuaren lendakaritza, eta liberal ta gordetzaille alderdien guda zar guztiak sartu ebezan gobernu orreitan, adibidez: Romanones kondea; Garzia ta Prieto 'tar Manuel; Maura ta Gamazo 'tar Gabriel; Maura 'tar Antonioren semea; eta Bugalla 'tar Gabino.

Gobernu onek, egutegi barri bat aurkeztuta: 1.931ko urtean Jorraillaren 12an ospatuko ziran Udalaren auteskundeak. Eta gero Araudi-Batzarraren auteskundeak.

1.931ko urtean Jorraillako 12an ospatu ziran auteskundeetan, emoitza onek agertu ziran: 22.150 zinegotzi, erregetzaren betiko alderdien taldekoentzat, eta 5.875 ziñe-

(1) Asturiaseko Gizartekerizkoak edo Sozialistak eta lege bagekoak = Socialistas de Asturias y los ácratas o los de sin ley. (2) Ezker aldeko erri-batasunaren garaipenak = los triunfos del frente popular. Frantzian sortu ziran leenengoz, "Frente-Popular" onen ekintzazko eritzi au. 1.936ko urtean espainitarren lurraldean. Eta 1.937ko urtean, Txilen askenez. (3) Sakratuzko izenakin lez: "Gizartekeriaren katolikotasuneko Aberkideztazagaz" = que en el nombre de una gran cruzada, nos traian el establecimiento definitivo del "Nacional Socialismo Católico" como directamente ordenada por Dios, o el dios que ellos profesan, que ha durado hasta hoy, con grandísimos y gravísimos problemas sociales de identidad irresolutos. (4) Berenger ta Fuste 'tar Damaso jenerala eta Xauen 'tar kondea = 1.873ko urtean Suban jaioa, eta 1.953ko urtean Madrillen il. (5) Bere makal edo bigunezko jauntzar jaurbide = que le quitó de la dictadura blanda que estaba ejerciendo. (6) Alba 'tar Santiago = 1872ko urtean Zamoran jaioa, eta 1.949ko urtean Donostin ildakoa. Gordetzailleakaz egon zan leenengo, gero 1.905eko urtean Liberalen alderdira aldatu zana, ortik aurrera: 1.906ko urtean Itsasoko ministeritza; 1.912-1.915ko urtetan erriaren diru kontuetan; 1.912-1.917ko urtetan Irakaspeneko ministeritza; 1.917-1.918ko urtetan Laterriaren ministeritza. Ribera 'tar Primoren denboran, Frantzian egon zan atzerriatuta, eta au jausi zanean espainitarren jaurkintza eskeiñi eutson XIIIIn Alfonsok, eta ez eban artu-gura zregiñ ori. (7) Santzez ta Gerra 'tar Jose = 1.859ko urtean Kordobako lurraldearen Kabra errian jaio zana, eta 1.935ean Madrillen ildakoa. (8) Madrillen, Jarraibideko espetxean = carcel Modelo de Madrid. (9) Ministeritzaren zorroak = carteras ministeriales.

gotzi, errepublikakoaren ezberdin mota edo eritziko taldeentzat. 52.000 ziñegotzaren ezar lekuak, autatubageko jabe barik geratuz.

Eta nai ta erregeen aldeko zinegotziak, errepublikaren aldekoenak baiño askoz geiago izan, errepublikanauak, 50eko Lurraldetik, 41eko Uri nagusietan, irabazle urten eben.

Madrilleko zinegotzi artean, errepublikanauak, erregearenak baiño iru bider geiago atara eben. Eta Bartzelonan lau bider geiago.

Geroagoko ikerketak baiña 19.035 zinegotzi erregearen gobernuko eritzien alde, 39.568 zinegotzi Errepublikanoak, 15.198 zinegotzi, Tradizio zaleek, osotasunezko karlistentzat, Euskal Abertzaleak, Askatasunezkoentzat, ta abarrezko zaleentzat. Azken auek, ezin ebela ziurtasunezko erakundez mail baten lerrotuta agertu

Eta auteskunde orreik, zein, noren alde egon ziran, edo erregetzaren aldekoak zenbat ziran jakiteko, izan-gaitasun orregaz orokorrezko auteskundeen legeak aldatzeko ospatu ba ziran auteskunde orreik, errepublikako alderdikide guztiak, erri-autarki lez artu eben, bereala In Errepublikaren jaurbideak ezartzeko.

Oyos'eko⁽¹⁾ markesak auteskunde onen gora beran: "garrantzi aundiko errien albesteak, Uri nagusiarenak beste txarragoak zirela esan eban.

Eta auteskunde onen emaitza, erregezko eritziaren aurka agertu bazan, erri ta Urietan autarki-bozka, faltsotu edo naastekatu barik egon zalako zan. Eta orrek, baka-rrik esangura ebena, XIII In Alfonso Prin'en jaurbideari larregi ondoratu zalako, guztiz aipubage edo euki eban azkeneko izen-onenagaz be, guztiz ondatuta geratu zala.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Aznar ta Kabañas'tar Juan Bautista⁽²⁾ gorteko batzarrean aurkeztu zanean, ministruen batzarra ospatzeko, ta berri-idazleak itandu eutsoenean: "Ministro, hay crisis de gobierno?".

Aznar-Kabañasek erantzun eban:

¿Que si hay crisis de gobierno?. ¿Que más crisis desean ustedes, que la de un país que se acuesta monarquico y se levanta republicano?.

Gobernuaren batzarrean de la Zierba ta Peñafiel'tar Juan, laguntzaillezko ministririta eroaten ebenak, mukertasunezko⁽³⁾ edo agertzen egon zan askatasunezko eritziari itxaroten, gogorrean eutsi⁽⁴⁾ egin bear eutsoela gobernuari esaten eban: "Hay que construir un gobierno de fuerza, implantar la censura y resistir" esaten ebalako indar guztiagaz.

Zeri eutsi bear eutsoen eurak, euki eben almenezko indar guztiagaz?.

Edo ta, erritarren bearkuntzak jaurkitu barik, zeri egon ziran jaurkintzen?.

Argi dago, okerrezko gauza aundi bat dagoela emen, jaurpide orreik, berekotasunaren aurka egiteko, euren erritarren aurka egiñez gain, berton eta eskubide bardiñakaz dagozan erri ezberdiñaren aurka egiten ebelako.

Nekez ulertzen direnak dira: Goiko Jaungoiko Iraslearen Legeen aurka, ain gogor egiten ba dabe.

Araujo ta Bugallal'tar Gabino kondea⁽⁵⁾, ta Garzia ta Prieto'tar Manuel⁽⁶⁾ Aluzemako markesaren antzekoak, laguntzen eben, konstituzio barri orrein guzurrezko

(1) Oyos'eko markesak = Marqués de Hoyos. (2) Aznar ta Kabañas'tar Juan Bautista = Juan Bautista Kabañas Aznar = 1.860ko urtean Kadiz'en jaioa, eta 1.933ko urtean il zana. Espainitarren gobernuan, Berenger Jeneralari ordezkatu eutsona. (3) mukertasunezko = resistencia, insumisión, desobediencia. (4) Eutsi = retener, reprimir, que debían sostenerse en sus tesis, hacerles frente. (5) Araujo ta Bugallal'tar Gabino, Bugallal'eko kondea = 1.861eko urtean Galiziaren Pontebedrako luraldearen Puente-Areas'eko erri txoan jaioa, eta 1.933ko urtean Paris'en ildakoa. (6) Garzia ta Prieto'tar Manuel = marqués de Alhucema.

eritziak. Baten batek emonda, eurak ekarten ebelako Erromatarren kaisar katoliko abertzaletasun menpean batzangotzeko agindua. Nizeako 325eko urtetik, Europa ta Mundua jaurkitzeko gaur arte beintzat, menperatzailetasunaren bide edo erea dalako, danok eritzi orren azpian artalde lez egon gindezan.

Figeroa ta Torre Albaro´tar, edo Romanones´eko kondeak bideratzen ebazanak beste ministruak, dana galduta egoala oldozten ibili ziranen aurka.

Geiago, Lurraldean orokorreko gudal kapitaiñak urrutizkiñatik bialtzen ebazan erantzunak, Berenger´tar Damasok ariñautik ta urrutizkin bidez, erantzuteko bialdu eutsen itaun eta aolkuak, aurrera egien: *“con el curso que les imponga la suprena voluntad nacional”*.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Leoneko Saagun, Gipuzkoako Eibar, eta Ueska´ren Jaka´ko Uriak izan ziran, gobernuak baieztu orduko egun bat ariñago, Errepublikaren ikurriña goratu ebenak.

Gero Errepublikako gobernuak, “Uri Andikien Izenakaz” saritu egingo ebazanak.

1.931eko urtean Jorraillaren 14an Sanjurjo⁽¹⁾ gudal nagusia, guardia zibillaren zuzendari zala, Maura´tar Migel´en etxera joan zan, berton, Frantziko erbestera joan ez ziranakaz berba egiteko: Alkala-Zamora´tar Nizeto, Largo ta Kabalero´tar Franzizko, de los Rios ta Urrutia´tar Fernando⁽²⁾, Kasares ta Kiroga´tar Santiago⁽³⁾, eta Albornoz´tar Albaro de⁽⁴⁾ Errepublikako zaleen guztiekaz.

Sanjurjo, Maura´tar Migelen etxera sartuaz, Maura´ren aurrean artez geratu ondoren, gudalarien kilimusia eginda⁽⁵⁾, *“a las órdenes de usted señor ministro”*, esan eutsen.

XIIIIn Alfonsok bere aldetik, Alkala Zamora´tar Nizeto´ren antziñako laguna izan zana Romanones´eko kondeari eskatu eutsen, beragana joan zedin, “Matxinatu Batzararren” lendakari lez, bere ta beren senditasunezkoai, ia bide bat baieztan ba eutsoen atzerrira bakez joateko.

Marañon´tar Gregorio⁽⁶⁾, XIIIIn Alfonso erregearen sendiko osagillea izan zana, eta gero errerepublikako alderdira aldatu zanen etxean, eguerdiko ordu baterdiak zirala egin zan batzar ori.

Romanones kondeak, aldaketazko gobernu bat ipintea eskaiñi eutsen Alkala Zamoratar Nizetori, bai ta XIIIIn Alfonsok gobernu orren utziera egitea Asturiaseko printzearen alde.

(1) Sanjurjo ta Jakanell´tar Jose = 1.872ko urtean Zaragozan jaiola, eta 1.936ko urtean Lisboa inguruan ilda, Marrokos´eko gudaldian Gurugu ta Laratxeko mendiak artugurean ibilita, eta il osteko Ereñustutako Gurutzearen domiña artuta. 1.932ko urtean, gusadia zibillaren zuzendari izan zanean, Errepublikaren aurka matxinatu zan eta espetxeratu ondoren iltera zigortuz, betiko espetxeagaitik ordezkatu eutsoen, eta 1.934ko urtean askatu eben Portugalera joanda, 1.936ko urtean Frankoren ondora etorteko zanean, egazkiña jausi eta berton il zan Sanjurjo ori. (2) De los Rios ta Urrutia´tar Fernando = 1.879ko urtean Abenduaren 8an Malagako Ronda Urian jaiola, eta 1.949ko urtean Loraillaren 31n Nueva York´en il zana. (3) Kasares ta Kiroga´tar Santiago = 1.884ko urtean Koruñan jaiotakua da, eta 1.950eko urtean Paris´en il da. Errepublikaa sortzeko matximatuz guztietan ibilikoa zana. (4) Albornoz´tar Albaro de = 1.879ko urtean Asturias´eko Luarkan jaiola, eta 1.954ko urtean Maxiko´n il. Lege gizon, Idazle, ta espainitarren politikua zana. (5) Gudalarien kalamusia = el gesto que representa el saludo militar. (6) Marañon ta Posadilla´tar Gregorio = 1.887ko urtean Madrillen jaiola, eta 1.960ko urtean Ladrillen il. Espainitar Politiku, Osagille, ta idazle izan zana.



1.931ko urtean Jorraitaren 12an egin ziran Udalen auteskundeak

Alkala Zamora 'tar Nizetok baiña, *“Antes de que se ponga el Sol”* espainitar lurralde-tik urten egie-la eskatu eban. Romanones' eri oarkizun au egin be: *Si antes del anochecer no se ha proclamado la república, la violencia del pueblo puede provocar la catástrofe”*.

1.931ko urtean Jorraitaren 14ko egunean urten eban erregea bere sendiagaz atzerrira.

1.931ko urtean Jorraitaren 14an, goizeko seiterdian aldarrikatu zan II In Errepublikako Jaurkintza. Erregea, Kartajenako kaian itsasontzia artuta, eta bere senidetasuna suburdia artuz Frantzira atzerriratu ziran.

1.931ko urtean Jorraitako 14an, Eibar izan zan goizeko seiterdian leena, Errepublikako ikurriña goratu ebena. Gero arratsaldean, beste Uriak goralduta: Balenzia, Bartzelona ta Madrillekoak artean zirala, euren auteskundeetan nagusitaun aundiak lortu ebazalako.

Eibarko idazle Etxebarria 'tar Toribiok, alan idatzi eban II In Errepublikako aldarriketa bere liburu *“Ibilaldia Oraitzapeneko Erritik”*⁽¹⁾:

...y antes de las seis de la mañana habíase congregado el pueblo en la plaza que se iba a llamar de la República, y los concejales electos del domingo, por su parte, habiéndose presentado en la Casa Consistorial con la intención de hacer valer su investidura desde aquel instante, se constituyeron en sesión solemne, acordando por unanimidad proclamar la República. Acto seguido fue izada la bandera tricolor en el balcón central del ayuntamiento, y Juan de los Toyos dio cuenta desde él al pueblo congregado, que a partir de aquella hora los españoles estábamos viviendo en República.

1.931ko urtean Jorraitaren 16ko egunean, XIII In Alfonso eta Migel Maura 'ren anaia Maura 'tar dukeak idatzita, agiri au argitaratu egin zan, 17n egunean, ABC izparringi edo aldizkariaren leenengo orrialdian, bitarteko gobernuaren oarpen bategaz batera urten ebena:

“Las elecciones celebradas el domingo me revelan claramente que no tengo hoy el amor de mi pueblo. Mi conciencia me dice que ese desvío no será definitivo, porque procuré siempre servir a España, puesto el único afán en el interés público hasta en las más críticas coyunturas. Un Rey puede equivocarse, y sin duda erré yo alguna vez; pero sé bien que nuestra patria se mostró en todo tiempo generosa ante las culpas sin malicia.

(1) Ibilaldia, oroitzapeneko erritik = viaje por el país de los recuerdos.

Soy el rey de todos los españoles, y también un español. Hallaría medios sobrados para mantener mis regias prerrogativas, en eficaz forcejeo con quienes las combaten. Pero, resueltamente, quiero apartarme de cuanto sea lanzar a un compatriota contra otro en fratricida guerra civil. No renuncio a ninguno de mis derechos, porque más que míos son depósito acumulado por la Historia, de cuya custodia ha de pedirme un día cuenta rigurosa. Espero a conocer la auténtica y adecuada expresión de la conciencia colectiva, y mientras habla la nación suspendo deliberadamente el ejercicio del Poder Real y me aparto de España, reconociéndola así como única señora de sus destinos.

También ahora creo cumplir el deber que me dicta mi amor a la patria. Pido a Dios que tan hondo como yo lo sientan y lo cumplan los demás españoles⁽¹⁾.

XIII In Alfonsok, odolkeririk ez daiten sortu, bere ministruaren aurka agertuz, atzeriratu egin zan, Alkala-Zamora´tar Nizetok Errepublikako jaurkintzaren lendakariak askeneko deia egin eutsonean.

XIII In Alfonso espainitarren lurraldea itzi eban, erregearen ondorezko agirietan ezerezen uzte⁽²⁾ egin-bage, eta Paris´era joan zan, gero Erromako Urian bizitza eroanda, il zan arte.

Alkala-Zamora´tar Nizetok, erritarren ta orduan Sanjurjo´tar Josek bideratzen eban guardia zibillaren laguntza euki eban, eta gobernu bitartekoen Lendakari lez geratu zan.

Alkala-Zamoratar Nizeto ta Maura´tar Antoniok, ordu orreitan, gordetzailleen-aberats egoera baieztu egiten eban, beste era bateko politikagaz batera, euki eben bitarteko gobernu orretan.

1.931ko urtean Jorraillaren 15ean, San Sebastian edo Donostiko Ongundean erperatuta egoan, Errepublikaren bitarteko gobernu barri ori, egitamu bat aurkeztuta:

- Nekazarientzat, berrizte bat aurkezten ebana.
- Erlijiozko sinismen eta gurketak, askatasunean izten ebazala.
- Ondasunaren Jabetzazko lege barriak, begitu egingo ebazala.
- Kaisar gobernuarekin laguntzaille lez, ibili ziranarekin begituko ebazala.
- Bakotzaren eta alkartasunezko erakundeetan, gero ta geiagoko askatasunetan, aurrera egitea, eta abar.

Alkala-Zamora´tar Nizetoren gobernu orrek, egikeraren agindutara aldatu zan orduan, aurre egin bear izan eutson Kataluñan aldarrikatu zan Katalanaren Errepublikari, eta urte orren Lorailan, eleiz katolikuen aurka urten eben alegiñari be. Bai ta, lege-etsaien⁽³⁾ arazoari, lenengo ordutik aldarrikatu ebelako: “Eurak ez doiezala Errepublikarekin”, beren aurka eginda, egiten ebazan alegiñ guztiak.

1.941eko urtearen Urtarrillan itzi ebazan XIII In Alfonsok, bere erregetzaren titulu orreik, irugarren semeen alde.

1.941eko urtean Otsaillaren 28an Erroman il zan XIII In Alfonso au.

2. 18. *Alcalá-Zamora´tar Nizeto 1931´ko urtean.*

Azaña´tar Manuel´ek bideratzen eban errerepublikako gobernu, ezker aldera asi zan eritzitzen, 1.931ko urtean, idatzi ziran konstituzio barrietan, argi geratu zana. Ekaiñaren 28rako auteskunde barriak egiteko aginduz.

(1) Celebraciones de la proclamación de la Segunda República Española en Barcelona. Extraído el año 1.931 de los archivos federales de Alemania. (2) Erregeen ondorengo Agiri´etan ezerezen Uzte egin bage = sin hacer ninguna clase de abdicación en la carta de sucesión real. (3) Etsaien legea = leyes de los ácratas, anarquistas y libertarios.

Bai gogortu be, eleiz katolikuaren aurka sartu ziran, Gordetzaille, Errepublikarrak, gizartekeriaren aldekoak edo sozialistak, ertzeko zaleak, eta abar.

1.931ko urtean Urrillaren 14an asken baten, Akala-Zamora´tar Nizeto eta Maurak, utzi edo alde egin eben, gobernu ortatik.

2. 19. *Alkala-Zamora´tar Nizeto, IIn Errepublikako lendakari.*

Sozialistak eta Azaña´ren⁽¹⁾ aldekoak beldur, Alkala-Zamora´tar Nizetok Errepublikaren aurka, ikustaldi, edo bir-azterketa⁽²⁾ bat egingo ba-eutson, edo ta aipu-galtze edo izen-galtze⁽³⁾ alako bat egian, Errepublikaren lendakaritza agindu eutsoen berari.

Eta 1.931ko urtean Abenduaren 2an, Errepublikako lendakaritzarako autatu eben Alkala-Zamora´tar Nizeto´ren aurkezpen bakarrarekin, 1.931ko urtean Abenduaren 11n jantzi eben, Errepublikaren lendakaritzagaz.

Alkala-Zamoraren eritzian, berregintzaren⁽⁴⁾ ostetik, Borboien aurka sortu ziran talde barri guztiak, espainitarren gobernuan euki egien ordezeko ezar lekuak, egin ziran.

Zabaltasun onen egikera, goitik beragoko antolamenduzko agintaritza bat bear eban, legeak baldintza barri batzuketan jantzita egon ziranak ostopo egiten, bakez kentzeko, edo alboratzeko Lege-Biltzarrean.

2. 20. *Azaña´tar Manuel´en arazoak.*

Orduko gobernuaren arremanak, gora bera andikoak ziran.

1.931ko urtean, Azaña´tar Manuel´ek, Alkala-Zamorari, idatzi ziran konstituziozko legeak, berak ontzat artuta baiezteko aurkeztu eutsozanean, izenpetu egiezan. Adibidez: Batzarraren Legeak baieztatzea; edo bere bardiña izan zana “ikasbideak erritarren artean ezartzea”⁽⁵⁾; bai ta “konstituziozko legeak bermatu edo baikuntzatu egiten ebazan epaitegi edo Auzi-etxearen legeak”⁽⁶⁾ baieztu egiazala eskatzen eutzan.

Alkala-Zamorak, nai ta ausartu ez arren, lege orreik ezerezean izten, ez eutson izenpetzeko baietzik askenerarte emon. Aurkariak, Alkala-Zamora´ri: “luzakari, iraunkor, edo ta alper lez” salatuta.

Geroago, eta gobernuaren berrikuntza bategaitik, eztabaidako ezberdintasun orreik agertu ziran ostera, eta Azaña´tar Manuel´ek bere gobernuaren kideakaz, uko egin eutson bere ardurazko jaurkintzari.

2. 21. *Espainitar konstituzioaren IIn Errepublikakoa.*

Espainitar IIn Errepublikararte, eta baita gaur arte be, alperrik egin dira ainbeste jaurkintzazko ekintz, ta gobernu ezberdiñaren ikerketazko saio barri, demokraziaren antzeko bat lortu naian.

(1) Azaña´tar Manuel = 1.880ko urtean Henareseko Alkalan jaioa eta 1.940 urtean Frantziako lurraldearen Montauban´en ilda. Bera izan zan matxinatuen batzarekotik Errepublikako mogimendua ibiltzen ipiñi ebena. (2) Errepublikaren aurka, ikustaldi edo bir-azterketetan asi dagian = miedo de los socialistas y Azañistas, a que Alkala-Zamora comenzase en plan revisionista contra la República. (3) Aipu galtze edo izen galtze = campaña de desprestigio. (4) Berregintzaren ostetik = después de la restauración. (5) Ikasbideak erritarren artean ezartzea = secularizar la enseñanza. (6) Konstituziozko legeak bermatu edo baikuntzatu egiten ebazan Auzi-Etxearen legeak, baieztu egiazala eskatzen eutzan = que aprobases las leyes constitucionales que presentaba la Ley del Tribunal de garantías constitucionales.

Ezinezkoa dalako: Zor-eskubideko ardura baten, Demokraziaren billa, ekanduz jokatzeko bakeak lortzen. Egiaren orde, ta inguru guztietatik josita, maltzur ta guzuraren ugaritzak, dan guztia, korapillotu egiten bada be.

Orregaitik, alperrezkoak dira, aurreruntz egiten diran alegiñ guzti orreik, demokraziaren ekanduz jokatzeko, beti zikintzen diralako, jaurkintzan bear diran, edo ditek aukera guztiak. Eta gudoaloztearen indarrezko almen bakar bategaz bakarrik al izan dira edesti guztian, maltzur ta guzurrezko burdi ori, aurrera eroateko. Ez dira gai izan, egiz jokatzeko, eta gitziago, 325eko urtetik erperatuta daukaguzan oker guztiak, beren sorburutik egiztu edo garbitzeko. Eta deitu ba jakon II In Errepubliketa, 1.873-1.874ko urte bitartean, lenengoa egin zanetik, berezkatzeko da.

1.931ko urtean Jorraillaren 14tik, XIII In Alfonsoren jaurbideak baztartuz, 1.939ko urtean Jorraillaren 1´erarte iraun eban, edo, erritarren arteko guda amaitu zan arte.

1.931ko urtearen Jorraillatik, Abenduaren 31ko egunerarte iraun eben, bein beiñeko edo bitarteko⁽¹⁾ gobernu, eta denbora orretan, 1.931ko konstituzioa baieztu zanetik, II In errepublikako edestian sartzen gara, 1.931-1.936ko urte bitartean, “bakez” iraun ebena.

Iru ikerketagaz aztertzen dabe edestilariak, II In Errepublikako aldi ori:

-Lenengoa, “1.931-1.933ko urte bitartean, Azaña´tar Manuelek, errepublikatar eta sozialistakaz jaurritu ebena, espainitar eritzizko aberri barri ori, zar-berritu gurean”.

-Bigarrena: “1.933-1.935eko urte bitartean, ezker zaleen aldetik, bi-urteko jaurkintz baltz deituko zana. Lerroux´tar Alejandrok, bere errepublikar ertzeko alderdiagaz, Lege Biltzarretik, katoliko aberritar eskuma´koen aurka, CEDA´rengoagaitik⁽²⁾ lagunduta egon ziranak, lenengo urte biko legeak, ezereztuten ibili ziralako.

Urte-bi onetan sortu zan, lege-bageko⁽³⁾ ta sozialistaren garrantzi aundiko matxinada, Asturiaseko lurraldeetan. Erritarren matxinadan biurtu zana, eta gobernuoak, gudoalozteen indarragaz bakezta bear izan ebena.

Iru garrena: 1.936ko urtearen orokorrezko auteskundeagaitik ezker-zaleak, garai-pen aundiak lortuz, marratuta dagoana, eta ortik aurrera “Erritarren-Aurrea edo ta Aurkaritza”⁽⁴⁾ deituta, bost illabetetan bakarrik jaurkituko ebena, 1.936ko urtean Uztaillaren 17-18ko egun artean, gudoaloztearen zati batzuk matxinatu zirelako, Mola, Franko, Keipo de Llano, Hitler, Mussolini ta abarren agindu ta laguntzagaz, espainitarren Erritar-Guda deituko zana, sortuz.

1.936-1.939ko urte bitartean iru jaurbide aldatu ziran:

-Leen, “Ezkertar-errepublikano Jiral ta Pereira´tar Josek⁽⁵⁾, 1.936ko urtearen Uztaillatik, Iraillararte iraun ebena, eun-askoko mota ezberdiñaren batzarregaitik bideratuta egon zana.

(1)Bein beiñeko gobernu, edo bitarteko gobernu = gobierno provisional. (2) CEDA = Confederación Española de Derechas Autónomas. (3) Legee-bageko = elemento sin ley, anarquista, libertario, o, ácrata. (4) Erritarren-Aurrea edo Aurkaritza = Frente Popular. (5) José Giral y Pereira = 1.879ko urtean Kuba´ko Santiagon jaioa, eta 1.962ko urtean Mexikon il. Madrilleko Ikastetxe Nagusiaren zuzendari izan zan. Lege-Biltzarreko diputada. 1.931ko urtean Itsasoako ministrua. 1.936ko urtean Aolkularitzaren lendakaria eta 1:936ko urte orren iru illa betetan Gobernuaren lendakari, eta Errepublikako lendakaria gobernuaren atzerritasunean, ta abar


-Bigarren, Largo ta Kaballero tar Franzizkok⁽¹⁾ “Orokorrezko Langilleen Batasunagaz”⁽²⁾ eta “Langitzazko Aberkideen Elkartegaz”⁽³⁾, matxintasuna sortu eben artean, bideratzen ebana.

Eta irugarren jaurbidea: Loraillaren ekitaldi ostean, Largo ta Kaballero´tar Franzizko jaurkintzatik kendu ebenean, Negrintar Juanek⁽⁴⁾ bideratu ebena, arik ta 1.939ko epaillaren 28an, Kasado ta Lopez´tar Segismundo⁽⁵⁾ koronelak, espainitar Laterrien aurka emon eban matxintasunagaz, Errepublikako gudariak etsaimendu ziran arte, urte ta egun onetan siñatu zana. Espainitar barri orren zuzentasuna ordutik aurrera, Franko izan da bideratu ebena, nausitzar edo jauntzar-aldiko jaurbidez.

Errepublikaren zuzendariak ortik aurrera, atzerrian iraun eben, errepublikaren ta erritar errepublikanuen arazoak konpontzeko. Bai ta Munduko bigarren guda nagusia asi zanetik, ia eltzen bazan aukera bat errira ostera etorteko. Gauzak baiña, alderantzizkoak biurtu ziran, eta euren bizitzazko arazoak, gogortu egin ziran ezin-besterarte.

2. 22. 1.931ko espainitar Konstituzioa.

1.931ren espainitar konstituzioa, eta 1.931ko konstituzioan, erlijiozko eztabaidaren galdeketak.



Bigarren Errepublikako leen gobernuua. Ezkerretik eskumara ezarrita dagozenak: Lerrux´tar Alejandro, Azaña´tar Manuel, eta Alkala Zamora´tar Nizeto. Gero ta lerrotasun barik: Albornoz´tar Albaro, Maura´tar Migel, Largo Kaballero´tar Franzizko, eta Rios´tar Fernando.

IIn Errepublikako konstituzioaren ataria, gobernuko agiri baten.

Principios fundamentales de la Constitución de 1931:

(1) Largo ta Kaballero´tar Franzizko = 1.869ko urtean Madrillen jaioa, eta 1.946ko urtean Paris´en il zana. Presidente del partido Socialista Obrero. Secretario de la Unión General de Trabajadores. Entre los años 1.931-1.937 Ministro del trabajo durante la segunda Republica. Entre los años 1.936-1.937 ministro de la guerra. En 1939 se refugió en Francia. Internado en Alemania por los soldados nasis, volvió a Francia en 1.945. Sus restos mortales fueron trasladados a Madrid en el año 1.978. (2) Orokorrezko Langilleen Batasunagaz = Unión General de Trabajadores U.G.T. (3) Langintzazko Aberkidearen Elkartasunagaz = Confederación Nacional del Trabajo (CNT). (4) Negrin´tar Juan, Madrilleko ikastetxe Nagusian, fisiolojia´ren maixua izanez gain, osagille ta politikua be izan zana = 1.891ko urtean Kanariaseko Palmatan jaio zana , eta 1.956ko urtean Parisen il. (5) Kasado ta Lopez´tar Segismundo = 1.893ko urtean eta Segobiako lurraldean, Nava de la Asunción errixoan jaio zan, eta 1.968ko urtean, Madrillen il. Berak kendu eban Negrin bere jaurkintzazko lekutik.

-Principio de igualdad de los españoles ante la ley, al proclamar a España como «una república de trabajadores de toda clase».

-Principio de laicidad, por el que se iba más allá de la mera separación entre la Iglesia y el Estado para adentrarse en un ámbito de total eliminación de la religión de la vida política. Reconocimiento, asimismo, del matrimonio civil y el divorcio.

-El principio de elección y movilidad de todos los cargos públicos, incluido el jefe de Estado.

-El principio de unicameralidad, que suponía la eliminación de una segunda Cámara aristocrática o de estamentos privilegiados y por el cual el poder legislativo sería ejercido por una sola Cámara.

-Se preveía la posibilidad de la realización de una expropiación forzosa de cualquier tipo de propiedad, a cambio de una indemnización, para utilización social, así como la posibilidad de nacionalizar los servicios públicos.

-Amplia declaración de derechos y libertades. Concedía el voto desde los 23 años con sufragio universal (también femenino desde las elecciones de 1933).

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, Alkala-Zamora´tar Nizetok artu eban bitarteko gobernu orren jaurkintza, arik eta 1.931ko urtean Urrillaren 14an Nizetok ikusita, zelang eritzien ulermenagaz artu eben konstituziozko 26 atala espainitarren Laterrizko laikotasunean⁽¹⁾, gobernuari beren uztea aurkeztu arte⁽²⁾, gobernuko gudal agintari nagusiak, Azaña´tar Manuelengaitik ordezkatu ebena.

1.931ko urtean Abenduaren 10ean, Alkala-Zamora´tar Nizeto urten eban aukeratu eta egon ziran auteskunde bitartez, 410eko diputaduen kopurutik, 362 autarki Alkala Zamora´rentzat izan zirelako. Gobernuko diputaduen batzarrak 446 diputadu euki ebazan.

1.936ko urtean Jorraillaren 7rarte egon zan Alkala-Zamora, gobernuaren lege-etekeo agindutara, arik eta erritarren batzarrekuak⁽³⁾, kendu eban arte, bat bakarrik egiteko almena eukin, eta bere agintasunean, bi bider ospatu ebazalako auteskunde orreik. Bere ordezkariak Azaña´tar Manuel ipiñita.

1.931ko urtean Bagillaren 28an araudi-batzarretarako⁽⁴⁾ ospatu ziran auteskundeak, Abenduaren 9an ospatuko zan konstituziozko araudi legeen gora berak, baiezteko zan.

Errepublikako konstituzio orreik, aurrerakuntza aundia esangura eban, gizaren eskubide arloetan, espainitarren demokrazizko bidean, arautu bear ziran legeen antolaketarako.

Gizaren eskubide asko onartu ziralako ortik aurrera, adibidez: “Araudiaren 10eko kopurutik, 3 zati, giza bakotzaren eta erritar eskubidearen alde idatzi ziralako; 1.933ko urtean eta 23 urtetik gora euki ebazan erritar neska-mutillientzat, zabaldu egin ziralako auteskundearen gora beran euki ebazan eskubideak, nai autemeneko⁽⁵⁾ ta aukeragaiezkoen⁽⁶⁾ autarkiko arloetan, erritarrak, diputaduen gorte edo batzarra deitzen zan gela bateko lege-biltzarragaz⁽⁷⁾ baliotuz.

Laterriaren lendakaria gaiñera, orokorreko auteskundeetan aukeratzen ziran artekari edo antolatzaileak aukeratzen eban.

(1) Laikotasuna = laicidad o, doctrina que defiende la independencia del hombre o de la sociedad, de toda influencia eclesiástica, o religiosa. (2) Beren uztea aurkeztu arte = Presentar su dimisión. (3) Erritarren Batzarrekuak = frente popular. Bi bider, ospatu ebazalako auteskundeak. (4) Araudi Batzarretarako = elecciones constituyentes. (5) Autesnebeko bozka = voto activo, facultad de votar. (6) Aukeragarri edo Aukeragaiezko bozka edo autarkia = voto pasivo. (7) Gela bateko lege-biltzarrean = unicameral, o parlamento que solo tiene una cámara.

Argi ikusten da emen, ezerezko begirun barik, azturaz, lur ta Goiko Jaunari begira sortu ta jendekuntzatu egin ziran errien eskubideak, pikutara bota zirela. Egin zan aldaketa guztia, kaisar menperatzail Erroma-Godo´tar Katoliko aberkide menpean batzangotzeko bidez, eta Izadi au, mozkingintza lez artuz, bere emaitzak diruketetan biurtzeko.

Errez ikusi leike, leenengo denborakin betetan zirela bakarrik Jaungoikuak Izadi oneri ipiñitako legeak.

Euskaldunen artean beintzak, ikusten dogun lez, edo ta Euskaldunakaz batera, beste berezko erriak bakarrik eldu zirela, “Izkuntzaren bidez”, Euskal Nortasunaren egizko Baita´gaz Nor-izatera, bakotzaren bere izen-bereziakaz. Bai ta, arrigarritzko “Batzar demokratikoak” lortzen be.

Arik eta Eki-aldetik ariñago, ta Mendebal onetan erromatarretatik ta gero 325eko urtean Nizeako Erroma´tar-Godo-Kristau eleizaren batzarretatik, asmatu ziran maltzurkerizko guzurak, eta dogma-arauz ziñeskintzatuta, katolikoan atsegiñezko aberri baratz edo ta parabisuan bizitzeko, diruaren arloak al-geien eukiten eban zerbitzura ipiñita, katolikotasunezko parabisu ori kontrolean eukiteko, eten bageko borrokan etorri garelá gaur arte, Euskalerriko edesti onen zeazkuntzak erakusten dauan lez.

Zergaitik ?.

Ez garelako izan gai, Jaungoikuak Izadi oneri ipiñitako legeak agirian ipinteko, eta geiago gure izan dogulako, geure legeak atara Jaungoikorenarekin ibili baiño.

Or agertzen jaku, Jaungoikua alboratzen dauan urrezko-tzekorra.

Jaungoikuaren Legeekin edestiko denbora guztiak, bardiñak dira, asieratik guk, bizitza onetarako daukaguzan aginduzko denborak amaitu arte.

Erreza da konturatzea, Izadi au, bere Sortzailleagaitik legeztuta egonda, guk, ez dogula ezeren almenik, lege barriak atarateko, Izadiak daukazenak betetea baiño, eta orregaitik dirala denbora guztiak bardiñak, gure zeregin guztietan egiten doguzenak, Izadiak daukan legeen ekanduz beteteko, demokraziaren ardurazko zor-eskubideen ordezkioak, bakez eta Jaungoikuaren Legeak agintzen dabezan erean beteteko.

Eginkizun orreitan ez zan bearko L.T.H.´rik, begirun aundiagaz begitu genduze-lako, bakotzari, zor izan jakona.

2. 23. *Laterri barri orren itxurapenezko ikur edo irudiak*⁽¹⁾

Errepublikako ikurriñaren more edo ubel⁽²⁾ margoa, erritarren margoa izanez gain, liberalak ta aurrerakoiezko taldeak edestitik ekarten eben margo politikua da, eta 1.820-1.823ko iru urte arteko ezkeroztik geien, XVIIn gizaldiko denboretatik, Austria´tar I Karlos kaisar katolikuen aurka matxinatu ziralako Gaztelarrak, ubel margo orregaz, Flandesetik ekarten ebazan gizonak, Gaztelatarrak alboratu ondore sartzen ebazako espainitarren gobernuan.

Orregaitik dator Gaztelako Komuneroen ubel margotik, euren ikurriñazko eragi-penetik etorten dalako.

1.931ko urtean Jorraillaren 12ko auteskundeetatik dana dala, erritarren artean, onartu zan margoa da.

(1) Laterri barri orren itxurapenezko ikur edo irudiak = nueva simbología del recién nacido estado Español. (2) More edo ubel margoa = el color morado de la bandera republicana.

Eta 1.931 Jorraillaren 27an, iru kolore “gorri, ori, ubel” margoakaz osotuta geratu zan Errepublikako ikurriña, beste Laterri eskumatar menperatzailetatik ezberdintzeko edo Berezkatzeko.

Ikurriñaren gora beraren eztaibadako bigarren lege-gaian: “ikurriñak, zut-oial, eta gud-oialarentzat” egon zan agindua, zear edo etzaneko⁽¹⁾ luzetan ta iru margoko itxuran egon bear zirala atonduta” esaten eban.

Goialdean gorria, erdi aldean oria eta be aldean, more edo ubel margoaz, erdiko ori margoan, espainitar armarrria daukela⁽²⁾.

1.869-1.870eko urte bitarteko errepublikaren gobernuak⁽³⁾, atara ebazan bost peztako diru txanponetan, espainitar armari ori atze aldean irarrita ekarten ebala.

Guzti au, 1.931ko konstituzioaren leenengo lege-gaian baieztu zan. Eta ubel margo ori Gaztelar Komunero matxinatuen oroimenez artuta, Errepublikaren ikur lez ipiñi zan.

Gobernuko agindu orretan, argitu egin zan, zelan Gaztelarrak, Aragoitarrai sartu eutsola margo ori, eta “ikurriñori gaur tolestatu⁽⁴⁾ egiten da, XIXn gizaldi erdian, espainitar aberriko ikurra lez artu zanen antzera.

Zer egin eben espainitarrak, maltzur ta guzurrezko ikurriñ ori aurrera eroateagaz ?

Bakeak urrundu, gaur, ikur orregaz zer sortzen dan ikusita.

II In Errepublikako ikurriñ orretatik, margo bi baieztuz gain, irugarren margo orrek esan gura dauana: Erdiugarte onek bere barne sakonean, Nortasunezko izatasunean daukazan ezberdineko arazoak konpontzeko, bera dala bakezko ikurra, bere demokrazi bidez, baktzari berea emonda, ezberdintasunezko izatasun orreitan, konpondu leikezelako dagozan arazoak, baktza NOR ta bere ARDURAKAZ bakez bizi izan, almenezkoa dalako danon artean, alkartasunezko antolamendu poli bat egitea.

1.820ko urterarte joan egin bear da, 1.934ko urtean peztaren 25 erleko txanponaren etorkizuna argitzeko, Riego jeneralak, San Juan ´eko Buruetatik⁽⁵⁾ Kadiz ´eko konstituzioa aldarrikatu ebanean, VII In Fernandori, iru urteko arnasa emon eutselako bere orokorrezko jaurkintzagaz aurrera egiteko.

Denbora onetan, Erdiugarte onetan, eta Omosapiensetik sortuta bizi ziran danoentzat, euskaldun, katalan eta gallegoen ezberdintasuna kontuan euki barik, aberriko gudalozteen serbitzua irasi eben, Gaztela ta Leoneko mora edo ubel margoazko ikurraz. Denbora gitzi iraun ebena, urte orren barruan aldatu zalako gorri ori margora, erdiko ori margoan, konstituzioaren izen burua irarri eutselako.

1.823ko urtean eta Frantziren laguntzagaz VII In Fernando ostera agertu zanean, kendu eban aberriko gudaloztearen serbitzu ori, lenauko orokorrezko legeak ostera ipiñita.

1.843ko urtean Urrillaren 13an, II In Isabel erregetzan egoala, bateratu zan leenengo, espainitar laterriaren ikurra.

Gobernu orren aginduagaz, bateratu egin ebazan ikurrak, iru margotik gorri ta ori ´ra, iru margoan euki zituzen guda-taldeko gudariak, iru margoko lepokoak⁽⁶⁾ ipintzen itzi eutselako, ikurriñaren kanpo aldeko ertzetik. Eta ori izan da aurrerakuntzazko etorkizunetik, agertu zan Errepublikako ikurriñean, iru margoen edestia.

(1) Zear edo etzaneko iru margo luzeetan egon bear zirala atonduta = que las tres bandas de distinto color, deben ser horizontales. (2) Erdiko ori margoan, espainitarren armarrria daukela = en la mitad y sobre el color amarillo el escudo de España. (3) Bitartearen gobernuak = gobierno provisional. (4) Tolestatu = doblar, plegar. (5) San Juan Buruetan = Cabezas de San Juan. (6) Iru margoko lepokoak ipiñita ikurriñaren ertzetik= corbatas o cordones de tres colores colgando del extremo de la bandera nacional rojo-gualda-roja.

1.868-1.871ko urtean, bitarteko gobernu orrek, IIn Isabel erbesteratu egin ebe-
netik, aldatu eben erregetzazko armarrri ori, Koroia ormakoagaitik aldatuz, eta eskusoi
edo atze aldean⁽¹⁾ Borboi ta Ajou´tar euki eben armarrriaren ikurra kenduta.

2. 24. (33) *Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio.*

2. 25. (34) *Jose Antonioren leen urteak.*

*1.904ko urtean Epailaren 6an, Bilbaoko Zazpi kaleen erdian, Gurutze kaleko 4-6
zenbakietan, Joan Santuen eleiz ondoan jaio zan, gure Agirre ta Lekube´tar Jose Anto-
nio, bateatu be, bertan egingo ebena.*

1.960ko urtean Epailaren 22an, Paris´en biotzeko miñagaz il zan, 56 urte eukezala.

*Leen aztura edo ezkuntzazko ikasketak, Bilbaoko Enperantza Barrian egon zan,
Euskal Erriko ikastolan bete ebazan.*

*Bigarren aztura edo ezkuntzazko ikasketak, Urduñako Josu-Lagunen ikastexean
asi zituzen, eta amaitu ebazanean ikasketa orreik, Deustuko Ikastexe Nagusira joan
zan, legeen zuzentasuna, edo, Lege-jakintzaren ikasketak osotzeko.*

*1.920ko urtean Jose Antoniok 16 urte eukezala, aita il jakon, eta bere senditasuna
Algotara aldatu zan. Amar arreba-anai arterekin, bera zan nagusia, eta jabetzaren
edo aitaren ardurazko ekintz orreitan emon eban, bere baitak emoten eutson zuzenezko
aolku osoa, beste anai-arrebak adiñekoak izan arte.*

*1.921eko urtean E.A.J.eko erakundean sartu zan, E.G.I. gaztediaren lendakari
izendatuta, gero zinegotzi ta alkatezko arduraduna izan da.*

*Zuzenbide edo Lege-Gizonen ikasketak amaitu ebazanean, bere senditasunak euki
eben kokolo⁽²⁾, izen bageko, edo izen-gordeko baltzua⁽³⁾ zan, Bilbo´tar-Txokolategintzan
asi zan, aolkularitzazko lanean. Bere jakintasun ta egilletasuna, argi ta garbi erakutsita.*

*Geroago, beste lau txokolategille bazkideekin alkartu, ta Bilbo´tar-Txokolategintza
sortu eben: Zurikaldai´tar Martina; La Dulzura; Karakas; ta Agirretar Txokolategin-
tzak alkartuz. Bakotzak %´etik, 25na garazkien agiriak euki zituzenak⁽⁴⁾.*

*Agirre´tar Jose Antonio adiñetara eldu zanean, lantegiko aolkulari izendatu eben,
eta bere anai Juan Mari, andik lau urtera. Lantegi orren zereginetan arduratu zan Jose
Antonio une-oro, eta 1.933ko urtean eraginkortasunex eskua artu eban, lantegiak bear
ebazan aldaketa teknikoetan lan egiteko aolkulari legez.*

*1.810-1.903ko urte bitartean bizi zan XIIIIn Leon Aita Santuak, eta 1.891ko urtean
Mundu osoaren gotzaiñarentzat bialtzeko, auek, Erri-Gizarte katoliko guztien artean
zabaldtu egien, atara eban “Rerum Novarun” eskutitza´ren⁽⁵⁾ jarraille izan zan Jose An-
tonio, bere aolkuzko mezuagaz, berrikuntza oneik sartu gurean ibilita. Lantegi guz-
tietan: osagille edo sendagille bat ipintea; Ordainduzko-Oporrak; Errigizarteen lan-
gilleentzako Etxe-bizitzak; Lantokietako garazki-agirien⁽⁶⁾ zati bat, langilleen artean
banatzea, zar sariak ordaintzeko, diruen gordailluak irastea⁽⁷⁾, ta abar.*

(1) En castellano escusón = Atze aldean edo ikurriñaren atze alde. (2) Kokolo, kokote edo Bilbo´tar-Txokolategintzan = fábrica de chocolaten Bilbainos. (3) Izen-bageko edo izen-gordeko baltzua = Sociedad Anónima. (4) 25na Garazki agiriak = que cada uno de los cuatro socios tenia un 25% de las acciones del capital en bolsa. (5) Eskutitza = Enciclica. (6) Lantokietako garazki-agirien zati bat langilleen artean banatzea = hacer partícipes a los obreros de una parte de las acciones de la empresa. (7) Diruen gordailluak irastea, zar zaritza ordaintzeko = crear depósitos de dinero, para abonar el retiro de los obreros.



Gudaritzaren "Larderialdia"⁽¹⁾ bete bear izan eban.

Eta gudari'ko denboraldi ori amaitu ondoren, bere zuzenketazko lanetan asi zan.

Esteban Bilbao'ren bulegoan asi zan laguntzaille lez. Eta beragaz iru urte egin ondoren, bere kabuz lan egiteko kezka edo griña sartu jakon, eta bere bulegoa Iturribide kaleko 2n zenbakian zabaldu eban, Berreteaga'tar Antonio bere lagunarekin batera.

Eta espainitar Ribera ta Primo'tar Migelen jauntzargopean egoala, lan ta politikako ardurakaz kezkatu⁽²⁾ zan.

Agirre'tar Jose Antonio E.A.J.ko taldean sartu zanetik, argi erakutsi eban berak, eta alderdiko kideak ikusi be, euen abertzaletasunezko maitasunez gain, zelango eskua eukan, arlo orretan lan egiteko.

Asieran baiña, E.A.J.aren Alberdi bi joetara, jokatu bear izan eban: Aberri ta Euskal Abertzaletasunezko Elkartearen⁽³⁾ artean.

Agirrek, ez eban on artzen jeltzalearen zatiketa bi orreik, Euskalerrria egoalako danon gainetik, eta ama erriak, ez ebelako bear inungo eritzizko zatiketarik, Aberria lortu gura ez-kero, edo berrezkuratzeko aleginetan.

1.930eko urtean, joera edo eritzi bi orreik bat egin eben, aurrerako, zatiketa edo beste talde bat sortuz, Eusko Abertzal Ekintzaren izenagaz⁽⁴⁾, katolikotasunezko kideasunetik kanpo egon zana⁽⁵⁾, gizartearen izaera sendikoa ta Errepublikaren zale izan zalako.

Agirre'tar Jose Antoniok bere barne edo baitan, E.A.J.ekoa senditzen zan, ta alan irau eban bere bizitz osoan, Euzko Gaztediko kideentzat ta Euzkadi egunkarietan argitaratzeko idaz lan guztiak, berritzaile ta alkartzearen zale agertuz.

1.930eko urtean, Ribera ta Primo'tar Migelen nagusi-tzargo edo jauntzargoa amaitu zanean, ibili aldi politikotetan, bide barri asko zabaldu ziran Erdiugarte onen lurraldean, Jose Antonioren politikari, aukera barri asko ta garrantzitsuak ekarrira.

1.932ko urtean Getxon egin zan batzarrean, endakerizko zentzunetik kanpo agertu zan, bere askatasunaren demokrazizko eritziaren antzera, Euskal Erritik kanpo jaiotakoak, alderdian sartzea ikus-arazi edo eskaini⁽⁶⁾ eban orduan.

2. 26. (35) *Jose Antonioren Bizitza, Errepublikako garaiarekin batera.*

Jose Antonio, Juan Mari anaiarekin, lantokiaren zuzendaria izan zan, lan-tokiko batzardearen langillekaz, adostasunezko arautegi bat ezarri ebenak, aolkularitzazko banakuntzaren aldetik onartu ebena, ta abar. Agirre'tar Jose Antoniok, bestelako aurrera pausoak emon ebazan lantegiak zuzendu edo kudeatzeko be, langilleak bide batez, artu egien, danon aleginetik irabazten zan zatia.

(1) Espainitarren gudaritzazko larderia bete bear izan eban = que debió de cumplir, la imposición de los españoles, a que los vascos cumplamos su servicio militar, bajo fuertes sanciones. Larderia = bramuras, bravatas, gallear, intimidar, sojuzgar, sufrir rigorez de esclavitud etc. (2) Politikako ardurakaz kezkatu = intranquilidad, preocupación por las cuestiones políticas. (3) Alderdi bien joetara, jokatu bear izan ebal: "Aberri" ta Euskal Abertzaletasunezko Alkartearen artean = que tuvo que jugar a dos bandos: "Aberri", o su omónimo E.A.J. o PNV, y Comunión Nacionalista Vasca. (4) Ortik aurrera Eusko Abertzal Ekintzaren izenagaz, beste talde bat sortuz = que aunque se unieron Aberri y Comunión Nacionalista Vasca, surgió otro partido con el nombre Acción Nacionalista Vasca. (5) Katolikotasunezko kideasunetik kanpo egon zana = no confesional, o fuera de la influencia católica. (6) Euskal erritik kanpo jaiotakuak, Alderdian sartzea ikus-arazi edo eskaini eban antzera = como propuso en la junta, de que en el partido, tambien podian participar los nacidos fuera del pais.

Eusko Jaurlaritzaren lendakaria eta Euskalerrriaren leenengo gobernuko babesaren Aolkularia, espainitarren gudan izango zan, aldi orretan, Euskal Gudarostea irasita, espainitarren Errepublikaz batera borrokatzeko.

1.929ko urteen Denbora onetan, Bilbaoko Athletik Klub taldeko jokalaria be izan zan, bere zuzenbideko lanetan be asita.

1.930eko urtetan, Ribera ta Primo´tar Migel menperatzail edo kaisartzaille sutsuaren azkeneko denboratan, eta Bizkaiko Gazte Katolikoan aldetik, lendakari ibili ondoren, E.A.J.aren kide egin zan, Leizaola´tar Jesus Mari burukidearen eskutik.

1.930eko Urtarrillaren 28an, yeregi edo utziera egin eutson Ribera ta Primo´tar Migelek, euken jaurkintzazko adurari.

1.930eko urtean Otsaillaren 25ean, E.A.J. edo Eusko Alderdi Jeltzalea ta C.N.V. edo Euskal Abertzaletasun Alkartean artean asten dira alkarrizketak, ostera lengo E.A.J.eko zentzunean batzeko.

1.930eko urtearen Jorraillan, Euskalerriko aberritarrak, Europako Aberritarren biltzarrean sartzea eskatzen dabe.

1.930eko urtean Bagillaren 1ean Donostin, "El Dia" aldizkaria asten da argitaratzen.

1.930ko urtean Bagillaren 15ean Bilbon, "Juventud Vasca" berriz zabaltzen dabe.

1.930eko urtean Bagillako 15ean, Ortuetak, Euskal Abertzaleen Alkartarekin kontrolatzen eban "Euzkadi" egunkariagaz, euskal erritarren arteko inkesta edo ikerraldi bat egitea erabagiten dabe, jakiteko, zeintzuk ziran euren borondatezko baitan, Euskal Aberritasunak euki ebazan akatsak, batzar bat orretarako irasita, oker orreik bereala konpontzeko.

1.930eko urtean Dagonillaren 17an, espainitarren aldeko II In Errepublikaren alde egon ziran alderdi guztien baimenez, Donostiko ongundea izenpetzen da, batzar ortara, iñungo Euskal Aberkidetasunik egon bage.

1.930eko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, Eusko Ikaskuntzaren bostgarren biltzar nagusia egiten da, antzezko lanaren buruz, euskal erritar trebetasunak erakusteko.

1.930eko urtean Urrillaren 26an, Euzkadi aldizkariagaz egin zan ikerraldi edo inkestatik, 20 kideko batzordekoagaz aukeratu zana, Sabinoren eritziakin ez eben euki antzezkorik be. Aberritasunezko egitamuagaz bat onartu zana, ta egun berean, Euskal Abertzeletasunezko Alkartean (C.N.V.) baztertu ebana.

1.930eko urtean Azillaren 16an Bergaran, Eusko Alderdi Jeltzalekoak eta Euskal Aberkide Elkartekoak (C.N.V) batzartzen dira, eta ostera talde biekaz bat egin ondoren, Eusko Alderdiaren Jeltzaleatasunagaz egin eben aurrera.

1.930eko urtean Azillaren 30ean, ta Andres Deunaren egunean, "Eusko Abertzelezko Ekintza"ren alderdia sortzen dabe, Andres Deunaren agiria aldarrikatuta.

1.931ko urtearen Urtarrill-Jorraillezko ille artean, oso eztabaida gogorra sortu zan E.A.J. le ta Eusko Abertzaletasunaren Alkarte artean, Bilbaoko aldizkariaren kontrola eukiteagaitik.

1.931ko urtean Jorraillaren 7an, E.A.J.eko kide batek, diruen garazkien-agiri batzuk ostu ebazalako, Euskal Aberkidetasun agerkaiak, E.A.J.leen eskuetan edo kontrolpean gertatzen dira.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Udal auteskundeak egin ziran espainitar lurtean, Errepublikanoak irabazita, ta urrengo egunean Espainitar Errepublikea aldarrikatu.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, Eibarko erria izango zan leenengo erria, In Errepublikako ikurriña goratu ebena goizeko leen orduetan.

27 urte eukazan gure Agirre´tar Jose Antoniok auteskunde orreitan, eta autagai izateko aukeratu eban lez, Getxoko alkate izendatuta, erakundeetako ordezkari lez, jardun-bide politikoaren bideakaz bete betean arduratu zan.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an Eibarren, espainitarren Errepublikeari begituz, Euskadiko Errepublikea be aldarrikatu zan. Batera Euskal Errietzako autonomi edo askatasun geiago eskatuz, arrigarritzko alegiñak eginda.

Urte artatik, eta biotz guztiagaz egin ziran alegiñak, ez ziran izan naikoak gure Euskalerriko Askatasunaren elburua lortzeko.

Gaiñera, nai ta oldozmen bidez gauzak lortzeko almena erakutsi, edo ta aurkeztu ziran zentzun aundiko elkartasunak be, ez eben balio.

Eta antolamendu orretan joan zan Euskalerriko Alkateen mugimenduekin, Araudia⁽¹⁾ edo estatutoa eratzen.

Alkateen mogimendu orrek, Eusko Ikaskuntzari eskatu eutson, askatasunezko autonomi edo askatasunezko arauditasunaren egitamu edo zirriborro bat idatzi egien, Alkateen alkarte urak eta Euskaltzaindiak, ondo jakin ebelako lan orren ezean, egiten zan guztia, eremu baten ereitea lez izando zala, alperreko ekintza ori, Euskalerrri osora zabalduz.

Eusko Ikaskuntzazko kide izan zan Landaburu´tar Franzizko Jabier´ek, Arabata-rreren izenean idatzi eban arauditasunezko montio ori, Euskalerrriaren askatasunerako.

Eta ori billa, Alkatezko mogimenduen batzorde iraunkor bat irasi eben: Azpeitia, Laudio, Nafarroako Zangoza, ta Getxoko alkateagaz, Ego-Euskalerrriaren guztira zabaltzeko asmotan.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio bera izan zan bat, eraginkortasun guztiekin lan egin ebena, Ego-Euskalerrriaren askatasunezko araudi orren alde.

1.931ko Ekaiñaren 14an amaitu zan, Lizarrako Euskal Araudi orren aldeko ekintza.

Ego-Euskalerrrien 427 Udalak egon ziran mogimendu orreitan, lau Uri buru nagusiak izan ezik.

1.931ko urtean ta Errepublikea agertu ondoren 27urte eukazala, Getxoko zinegotzi ta alkatea autu eben, orduko Udal-Auteskundeetan.

1.931ko urtean Ekaiñako 28an, espainitar gorte konstituzionalen buruz egin ziran auteskunde onek, eta Agirre, abertzal, karlista eta monarkikoakaz, danak Lizarrako euskal araudi edo estatutoaren aldekoak ziranakaz alkartuz, aurkeztu eben autagai zerrendagaz, Agirre bera, Bizkai ta Naparren aldetik, espainitar gorteetarako aldun diputadua izendatzen dabe, Madrillen, bere jakiturien ulertzagaz, laster erakutsita, berbetan eukan trebetasuna, Euskal Araudi edo Estatutuaren alde.

Bai ta lanean etenbageko egilletasun trebe ta garbia be. Gero 1.932ko urtean, ta 1.936ko urtean, Bizkaitik aldun diputadu izendatu ebena.

Agirre, Bizkai ta Nafarroako zerrendan joateagaz, bata edo besteari uko egin bear izan eutson, eta Nafar garaikoa eldu eban.

(1) Euskalerriko Araudia = estatuto de Guernica.

1.931eko urtean Iraillaren 22an, Lizarran onartu zan euskal Araudia edo Estatu-toa, Euskalerriko 420 alkatearen babesean, Madrilleko gortetan aurkeztu zan.

Ez eban sarrera edo artu onik euki espainitarren artean, euki ebazan baldintzaren artean, Batikanoren arremanetik, espainitarren Errepublikako gobernua, kanpoan geratzen zalako.

Konstituzioa idatzi ta onartzea izan zan, auteskunde onen ostean agertzen zan el-buru nagusia.

Madrillen, egon ziran diputadueri, zeregiñ aundiak emon eutsoezelako, Lizarrako estatutoen egitamu asmo onek. Ontzat artu bazan be, aldaketak egin bear eutsoezelako.

1.932ko urtean Urtarrillaren 31n, Euskalerriko udaletxeak, euskal lau lurraldeko Uri nagusietan batzartuta, laurentzat araudi bakar bat sortu egien, aldarrikatu ziran.

1.932ko urtea eta urte onen Urtarrillaren 31ko egun onetan, espainitarren aldetik Josu Lagunak erbestu edo ezereztu orduko, E.A.J.ko elkarte, egin eutsoen omenaldira joan zan erakunde lez.

1.932ko urtean Epaillaren 19an, Mendigoixale astekariko albistearen leen zenbakia argitaratzen da.

1.932ko urtean Epaillaren 21ean, euskal kudeatzalle⁽¹⁾ arduradunak, Estatuto edo Euskal Araudiaren eredu edo egitamua argitu edo aldarrikatzen dabe.

1.932ko urtean Epaillaren 27an⁽²⁾, Bilbaon ospatzen da leenengo Aberri Eguna, edo Euskal Aberkidetasunaren eguna.

1.932ko urtean Bagillaren 19an Iruñako Urian, kudeatzaille arduradunak egin eben estatuto edo Euskal Arauditasuna, Alkatearen batzarrean aurkezten dabe, euren eritzia emon egien.

Onartu zana: Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoako Alkatearen borondatean. Nafarroan baiña, baztartua izan zana karlisten autamen gutzigaitik, eta ostera batzartuz, onartu zan, Napartar Udaletxeen autamen batzuk aldatuz.

1.932ko urtean Bagillaren 22an, E.A.J.koak aurrera egiten dabe estatuto edo Euskal Araudiagaz, Araba, Bizkaia, ta Gipuztarrari dagokionagaz.

1.932ko urtean Bagillaren 29an, Europako aberri ezberdiñaren biltzar nagusia ospatu zan, ta bertan egon zan E.A.J.koak bialduta, Izaurieta tar Jose Mari ordezkaria.

1.932ko urtean Uztaillaren 2an E.A.J.lekoak, Euskalerriko Aberkidetasunen gaigaz, zabalkunde berezi bateri asiera emon eutson, Araba ta Nafarroako lurraldetatik, ia abertzaletasuna bizkortzen bazan.

1.932ko urtean Uztaillaren 17an, lliburu⁽³⁾ bat zabaldu eben E.A.J.learen aurka, bere barruan: "Judaísmo-Nacionalismo-Comunismo" ekarten ebena.

1.932ko urtearen Dagonillako illean Gernikan, Euskal Ikaslearen Biltzar Nagusia egiten dabe.

1.932ko urtean Dagonillaren 10ean Sevillan, Sanjurjok bideratzen eban eskumatar gudalariakaz, matxinada bat egiten dabe, Euskal abertzaleak guztiz aurka, urten da.

1.932ko urtean Iraillaren 9an, espainitarren gorteak, ontzat artzen dabe Kataluña-ko Araudia⁽⁴⁾.

(1) Kudeatzaille arduradunak = los gestores responsables. Kudeatzaille = gestor, negociador.

(2) 1.932ko urtean Epaillaren 27an = Domingo de Resurrección, edo Berpiztueraren Domekea. (3)

Lliburu = librito, libreta, librejo, folleto. (4) Kataluña-ko Araudia = estatuto Catalán.



®

1.932ko urtean Irailaren 14an, gizartekeri edo sozialismuagaz lotuta egon ziran gazteak, Bilboko "Juventud Vasca"ren bizi edo ta jolas tokian sartu ziran, eta aurkitu eben guztia, ankanz gora ipiñi ondoren, bertoko gazte abertzaleak espetxeratu ebazan.

1.932ko urtean Irailaren 15ean Donostin, Kataluñako Araudia izenpetzen dabe.

1.932ko urtean Irailaren 17an, Bilboko "Juventud Vasca"ren tokia, sozialistak eraso edo oldartu egin eben ostean, sozialistak zigortu barik, Euskal gazte abertzaleak baitu ebazan espainitar arduradunak, oneik beste gazte abertzaleen laguntasunagaz, leenengo gose-greba eginda.

1.932ko urtean Irailaren 17an, leenengo Euskal Abertzaleen astekari "Jagi-Jagi" agertu zan.

1.933ko urtean Urtarrillaren 29an Tolosan, E.A.J.aren Batzar Nagusia ospatu zan, berton, Alderdiaren zeregiña berritu, ta antolakuntza barri baten egokitzeko.

1.933ko urtean Jorraillaren 16an Donostin, "Euzkadi Europa"ren izen buruagaz, bigarren "Aberri Eguna" ospatzen da, jende samalda edo askorekin.

1.933ko urtean Jorraillako 23an Euskal-Iparrean, abertzaletasunetzko leen mugialdi izango zan "Euskualerri-Zaleen Biltzarra" irasi eben, Euskal Iparreko aberkideak.

1.933ko urtean Jorraillaren 29an Gazteizen, ELA/STV^{ek}(1), bere IIn Biltzar Nagusia ospatzen dau, Arabar sindikatuko edo Elkartasunetzkoak euki eben izena "Sindicato de Trabajadores Vascos" izenagaitik aldatuz.

Batera, Utretx'en ospatzen zan "Confederación Sindical e Internacional Cristiana"n sartzzea eskatuz.

1.933ko urtean Lorailaren 1ean, ELA'ren Biltzar Nagusia amaitu zan, Robles'tar Manuel aukeratuta, Elkartearen lendakari lez.

1.933ko urtean Uztaillaren 8an ezkondu zan gure Agirre ta Lekube'tar Jose Antonio, bere emazte, Aketxe ta Zabala'tar Mari Karmen'ekin, Begoñako eleiz nagusian.

Urte onetan eta politika arloan, uko egin bear izan eutson Getxoko alkatetzari, Euskal Araudi edo estatutoaren aldeko diputadu lanak artu bear izan ebazalako.

1.933ko urtean Uztaillaren 13an, Bizkaiko erki-jaurlari edo espainitar ordezeko agintariak, E.A.J.eko B.B.B. atxilotzea aginduten dau, politikan egon zan nekaitzezko oldarkeri edo bortiztasunetzko denboraleagaitik, abertzaletasunaren aurka.

1.933ko urtean Uztaillaren 25ean eta IIn Errepublikako denboran, Euskaldun, Katalan, eta Galleguak, "Konpostelako Ongundea" izenpetu eben, eurak bereztu ziran sorterriko aberrietan, buru-jabetasunagaz jaurkitzeko(2). Bertan, "Galeuzka" alkateari asiera emonda.

1.933ko urtean Dagonillaren 6an, egitamu barri bat artu bear izan eban, Nafarroako aldia kanporatu ebena, eta iru Lurraldeetan egin zan erreferenduan amaitu zan ekintza ori. Autarki geiena Euskal aldera lortuz.

Gazteizen, Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoako Udal ordearen batzar bat sortu eben, Kudeatzailleak egin bear izan ebazan Euskal Araudien antolamenduak baiezatzeko.

(1) E.L.A./S.O.V. = Eusko Langillen Alkartasuna/Solidaridad de los Trabajadores Vascos. 1.933ko urtean E.L.A./S.T.V. gaitik aldatu zana. (2) Euren Buru-Jabetasunagaz Jaurkitzeko = Para gobernar ellos, como les corresponde autonómicamente.

1.933ko Azillaren 5ean erri-autarkian⁽¹⁾ ta abailgarri⁽²⁾, Gipuzkoa ta Bizkaian, Euskal Araudia onartzzen da, nai ta Araban, ez ainbeste berotasunetzko-gogoarekin, os-tera, karlisten aurkaritzagaitik.

1.933ko urtean Azillaren 19an, gorteetako auteskundeak ospatzen dira, espainitar lurraldeetan, eskuintarrak irabazita.

E.A.J.leak baiña, bere garaipean aundiena lortu eban auteskunde onetan Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoan, 459.000 autarki euki ebazalako beren alde, 14.000 autarkien aurka, nai ta Araban, %etik 50 lortu ez, Euskadin alderdi aundienetan biurtuz gain, agiri erdiak baiño geiago, beraganatu ebazalako. Agirre, E.A.J.aren zerrendan aurkeztu zen.

Nai ta Errepublikako gorteen ezereztasuna, auteskundeak ospatzeko, eta ertzezko gobernuaren zalantzagaz, bai ta karlisten aurkaritzarekin, Araba Euskadiko araudi edo Estatutoan sartzeagaitik, lagundu ebela estatuto ori inguratzen, guda asita egoan 1.936ko urtean Urrillaren 1terarte.

1.933ko urtean Abenduaren 21n, espainitar gorteetan aurkeztzen da Euskal Araudia, eta eurak eskubitar geiago eukinda, atzera botaten dabe, gure eskubideko jaurkintza.

1.934ko urtean Jorraillaren 1ean Gazteiz en, irugarren Aberri Eguna ospatzen da.

1.934ko urtean Jorraillaren 5ean, espainitar gorreak, atzera bota ebezan E.A.J.leak aurkeztu eutsoezan asmoak, Araba, Euskal Araudietan beste lurraldeakaz bat agertu zedin, eta orrarte nekagarri ibili ba ziran alegiñ orreik, Lege-Biltzarreko legegintz-aldia amaitu arte iraun ebezan.

1.934ko urtean Lorailaren 5ean, "Jagi Jagi" astekaria agertzen da, bere bigarren aldia asita, nai bigarren aldi au E.A.J.learen antolamenduzko kanpotik ibili arren.

1.934ko urtean Lorailaren 6an Donostin, eta Euskaltzaleagaitik eraginda, leenengo "Euskal Antzerki Eguna" ospatzen da.

1.934ko urtean Lorailaren 25ean, larritasun edo gaitz-aldi gogorrek egon ziran Nafarroaren E.A.J.leko batzarrean, Doxandabarantz tar Jesus lendakaria, bere aginduteko arduratik kanpora bialtzeko, Aberriko Batzarretatik be, kanpo geratu zana.

1.934ko urtean Bagillako 9an Konstituziozko Baikuntzaren Auzitegiak, bere indarren gaiezatasuna edo bere indargabetasuna agertu eban, Kataluñaiko Lege-Biltzarrean, erritarren eskubideko legeak epaitu edo erabakitzeotan.

Eta 1.934ko urtean Bagillaren 12an espainitarren Lege Biltzarretik, asarre alden-du ziran, E.A.J.eko ta Z.E.ER.ko⁽³⁾ euskal katalanen txiker taldeak, Konstituziozko Auzitegiak Bagillaren 9an, Baikuntzaren azalakerak argitaratu ebazanagaitik.

1.934ko urtean Uztaillaren 5ean Bilbon, Batzartu egin ziran Euskalerriko Udalaren arduradunak, Madrilleko espanitar gorteak, eurekaz antolatu ziran zergak, itunez kanpo batu gura ebazalako. Euskalerriko lurraldeetan, bein-beiñeko edo bitarteko batzar bat eraikitea erabagita, arik eta orokorrezko batzar bat lortu arte, gure "Itunpeko-Ordainketa"⁽⁴⁾ orreik, babesteko.

1.934ko urtean Dagonillaren 12an, espainitarren indarrak Euskalerriko Udaltxeak artuz, zerga gora beran batzorde orreik, itunpeko erabagi barik ez ebelako gura ezer egin, ainbat alkate ta zinegotzi baitu ta espetxeratu ebazan.

(1) Erri autarkian = en plebiscito. (2) Eta abailgarri = y de forma abrumadora. (3) Z.E.Err. = Katalan Ezker-tien Errepublikoa. (4) Itunpeko ordainketa orreik babesteko = en defensa de nuestros conciertos económicos.

1.934ko urtean Dagonillako 26an Gazteizen, Eusko-Ikasleen III In Batzar Nagusia ospatu zan.

1.934ko urtean Iraillaren 2an Zumarragan, eta espainitarren erriko indarkeriagaz erasotuta, Lege-Biltzarreko ta Udaleko arduradunakaz osotuz, orokorrezko batzar bat egin eben, eta batzar ori amaitu ondoren, danoen ardurak bertan iztea erabagi zan.

1.934ko urtean Iraillaren 7an, ezkertiar eta abertzaletasunezko udalak, danoen ye-regi edo utziera aurkeztu eben, ain gogorra izan zalako espainitarrek erabilten eban aurkako erri-indarra, Udaletxeko mogimenduaren aurka.

1.934ko urtean Urrillaren 5ean, espainitar Laterri osoan azten da, aste oso baten iraungo eban matxintasuneko gose greba aundi bat, Euskadin, Bizkaia ta Gipuzkoaren lantegiko langilleak, onartu ebena. E.A.J.le ta E.L.A.tasunezko arduradunak, ez ziranak joan mogimendu orregaz, nai ta erabagi orregaz be, espainitar jaurkintzaren aldeko zigorrak bardin artu.

1.934ko urtean Azillaren 6an, E.A.J.learen diputaduak, ostera joan ziran gorteeetako batzarretara, Urrillaren 1ean Lerroux´tar Alejandro⁽¹⁾, Zedaren ertzeke jaurkintzazko lendakariari, euren baietzeko autarkia emoteko⁽²⁾.

1.935eko urtean Bagillaren 30eko egunean Iruñan, laugarren Euskal Aberri Eguna ospatzen da, espainitar gobernua aste bi ariñago, debekatuta euki eben gainetik.

1.935eko urtean Dagonillaren 4an Leioako Ondiz´en, eta E.L.A./S.T.V.en kabuz, kidetasun edo Lankidetasunezko 1´nengo eguna ospatzen da.

1.935eko urte onetan jaioko zan Jose Antonio ta Zabala´tar Mari Karmen´en leen alaba Aintzane. Eta Urte onetan argitaratu eban: “Entre la Libertad y la Revolución”. Bai ta “La verdad de un Lustró en el País Vasco”.

1.935ko urtean Azillaren 3an, Euskalerrriaren Mendigoizal Aberritarren Elkartzeko edo Bateratzearen Arautegia onartzen da.

1.935eko urtean Abenduaren 5ean espainitar gorteeetan, eztabaida oso gogorra sortu eben E.A.J.aren diputaduak, Kalbo Sotelokin.

1.936ko urtean Urtarrillako 26an, E.A.J.leko ordezkari batzuk, Erromako Aita Santu Katolikuarengana joan ziran, eta ez eutsoen onartu bakarrik egin, ateak be, ez eutsolako zabaldu, ta atezain egon zanak, atzetik eta maltzuratasunez, bide okerretik dabiltzela esan.

Argi da, 325eko urtean Nizean artu zan erabagitzetik, XI In Pio Aita Santua, Franko, Adolf Hitler, Mussolini ta Europaren fazizta talde gogorrenakaz batera ibili zala, fazizten gurutzada sakratuzko ekintz amorratu orretan. Mundu osoaren giza, katoliko sinismenean biurtuta, agintaritzape bakar, ta gogor baten menpe, batzangotzeko.

1.936ko urtean Otsaillaren 16an, Laterriaren orokorrezko auteskundeak ospatzen dira, autarki geiena, ezkerraldeko erritarrak eroan ebena, gero erritar-aurkaritz baten alkartzeko.

(1) Lerroux´tar Alejandro lege-Gizona = 1.843ko urtean, Kordobako Las Ramblasetan jaioa, eta 1.949ko urtean Madrillen il. 1.901eko urtetik, ainbat bide izan zan diputadu. 1.926ko urtean eta Alonso ta Salmeron´tar Nikolasegaz batera, “Errepublikako Batasuna”, “Ertzeke Alderdia”, ta “Errepublikaren Alkartasuna” irasi ebazan. “El País” aldizkaria bideratu eban, eta “Matxintasunez” aldizkaria irasi. 1.930eko urtean matxintasunezko batzarraren kide izan zan. 1.931ko urtean, Laterriko ministria, egon zan bitarteko gobernuan. Eta 1.933-1.934ko urtetan, lau biderrez leen ministria Aolkularitzazko ministerioan. 1.936ko urtean, Franko sartu zanean Erdiugarte onetan bere gudalozteakaz, Portugalera atzeriratu zan 1.947ko urtean ostera etoriarte. (2) Zedan ertzeke jaurkintzari euren baietzeko autarkia emoteko = para darle el voto a gobiernos parecidos al de la CEDA española, la agrupación de Derechas Autónomas, creada en Madrid el año de 1.933, por la fusión de acción popular y la derecha regional Valenciana, cuyo máximo dirigente fué J. M^a Gil-Robles, de ideología Católico conservadora.

1.936ko urtean Epaillaren 1ean, Laterriaren orokorrezko auteskundeen bigarren aldia ospatzen da, eta espainitarren artean antzeko emaitza lortu ondoren, E.A.J.leak, obetu eban leenengo auteskundearen autarkia.

1.936ko urtean Jorraillaren 7an, E.A.J.leko diputaduak, Alkala Zamora espainitar Errepublikako lendakaritzatik kalera botateko, autarkia emon eban.

1.936ko urtean Jorraillaren 15ean, euskal diputadu batzuk, espainitarren lege Biltzarrean aurkezten dabe, Euskalerriko errien autarki bidez⁽¹⁾ onartuko zan sort-arau edo estatutoaren egitarauzko zirriborroa.

1.936ko urtean Jorraillaren 16an, espainitarren gorteetan, estatutoaren edo araudien batzar barri bat irasten dabe, eta ostera zabaltzen da Euskal araudi edo estatutoaren aurkibidea, Araba sartuta alkarrizketa orreitan. Eta bide auek zabalduz, zelan E.A.J.eko arduradunak, "Erritar-Aukaritzaren"⁽²⁾ ondora aurreratu egiten da, Euskal Araudi edo Estatutoa onartu edo baieztuko.

1.936ko urtean Lorailaren 10ean, E.A.J.leko arduradunak, Azaña'tar Manuel'en alde emon eban euren autarkia, Errepublikako lendakaria izan zedin.

1.936ko urtean Lorailaren 12an, espainitar gobernuaren Lege Biltzarrak, onartu eban 1.933ko urtean Euskaldunak, errien-autarki bidez, Araba, Euskal lurralde bezela, Euskal estatuto edo araudipean ezartzea.



1.936ko urtean Urrillaren 7an, Agirre ta Lekube'tar Jose Antonio, Euskadiko lendakari lez zin egiten. 1.960ko urtean bera il arte izango zana.

1.936ko urtean Uztaillaren 17an, Afrikatik asten da gudalarien matxintasuna, espainitarren erri autarkiagaz, aukeratutako In Errepublikaren aurka.

Eta 1.936ko urtean Uztaillaren 18ko eguna aurrerantza doiel, Erdiugarte onen gualtegi batzuk, asten dira matxinatzen.

1.936ko urtean Uztaillaren 19ko egunean, E.B.B.rraren eritzizko aldetik, Euzkadi aldizkarian egertzen da adierazpen edo aldarrikapen bat, eurak, matxinatuko gudalarien aurka agertuz, eta In Errepublikako gobernuagaz egon zirala esaten.

1.936ko urtean Uztaillaren 22ko egunean Frankistak, Otxadio'ren aurka egiten dabe leenengo bonbaketa, nai ta Otxandion, ezereen gualozteko tresneri, ez gudaririk egon. Erritarren aurka egin ebelako, egin eben guztia.

(1) Euskalerriko autarki bidez = plebistizado por el pueblo. (2) Erritar aurkaritzaren = frente popular.

1.934ko urtean Dagonillaren 8an, Euskal arduradunak, “Eusko Gudarostea” sortzen dabe, Azpeitiko Loyolaren Santutegiko Jesusen Apaiz-gudari etxetik, Euskalerrriaren E.A.J.leko mutil ta eldu, bai ta zale guztiari deituta, Euskal-Gudarozte ori irasteko.

1.936ko urte erdirantza, Afrikako militarrek Franko, Mola ta Keipo de Llano Jeneralak buru zirela, Errepublikaren aurka matxinatzen asteko zurmurrak, gero ta aundiagoak ziran.

1.936ko urtean Dagonillaren 12an Bilbon, batzar bat irasten da, Bizkaiko lurraldea babesteko.

1.936ko Iraillaren 5ean Frankoren fazizta gudalozteak, Irungo Uria artzen dabe, IIn Errepublikeagaz egon ziran euskal erriak, inguratuz itzita.

1.936ko urtean Iraillaren 13an, Frankoren matxin zaleak, Donostin sartu, ta artu egi-ten dabe Uria.

1.936ko urtean Iraillaren 26an, Irujo ta Olo´tar Manuel biurtu zan egun onetan, E.A.J.leko garrantzi aundieneko kidesunean, Largo Kaballerok osotuko eban espainitarren gobernuan, zuzentasunezko ministrua izendatu ebalako.

2. 27. (36) Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio eta Euskadiren bitarteko Jaurkintza IIn Errepublika denboran.

1.936ko urtean Urrillaren 1ean, onartzen dabe espainitar Lege Biltzarrekoak, Euskalerrriaren autonomi, Euskal Araudi, edo ta estatutua.

Eta espainitar Lege Biltzar orreitan, Prietro´tar Indalezio leendakari lez eta Agirre´tar Jose Antonio idazkari izanda, Frankoren gudalozteak oraindiño, menperatu ez eben Euskadiko Udalaren ordezkokin, Agirre´tar Jose Antonio aukeratu eben, Euskadiko leendakari izan zedin.

